

Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako

Gizarte-mugimenduetan eta nazioarteko elkartasunean oinarritutako apustua

Juan Hernández Zubizarreta

Erika González

Pedro Ramiro

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 64. zbk., 2014

Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



HEGOA

IKASKETA BURUZKO LAN-KIDETZETA ETIA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria: Patxi Zabalo
Idazkaria: Mari José Martínez
Diruzaina: Eduardo Bidaurrezaga
Kideak: Elena Martínez Tola
Jokin Alberdi
Gloria Guzmán
Amaia Guerrero

Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Kompletensea
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea
Manuela de Paz. Huelvako Unibertsitatea
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomia
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU
José M^a Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

Hegoa lan-koadernoak aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa izeneko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak, 1989. urtetik aurrera argitara emandakoa, Diziplina arteko eta diziplina anitzeko ikuspegia izanik, argitalpen honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza berezi, enpiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapenaren eta lankidetzeta eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jardueri buruzko alderdi zabal bat lantzen dute.

Hegoa lan-koadernoak aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Edizio elektronikoa Hegoa (<http://www.hegoa.ehu.es>) eta Aldizkariaren webguneetan (<http://www.chu.es/ojs/index.php/hegoa>) eskuragarri dago

Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnaziionalen kontrolerako Gizarte-mugimenduetan eta nazioarteko elkartasunean oinarritutako apustua

Egilea: Juan Hernández Zubizarreta, Erika González y Pedro Ramiro
Itzulpena: Labayru Ikastegia
Hegoaren Lan-koadernoak • 64. zbk. • 2014
Lege-gordailua: Bi-1473-91
ISSN: 1130-9962
EISSN: 2340-3187

Hegoa
www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 81
48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa.
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Inprimatzea: Lankopi, S.A.
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Hegoa Lan-koadernoak sailean argitaratzen diren artikuluko guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratzen dira:
Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>



Finantzatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes ekonomikoari esker argitaratu da, *Gizarte-mugimenduak indartzea helburu duen lankidetzeta eraldatzaileko agendarako gakoak* (2013) izeneko ikerketa proiektuaren barruan.

Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako

Gizarte-mugimenduetan eta nazioarteko elkartasunean oinarritutako apustua

Juan Hernández Zubizarreta. Zuzenbideko doktorea, UPV/EHUko Enpresa Zuzenbidearen Saileko irakaslea eta Hegoa Institutuko kidea. Ikerlanak egin ditu enpresa transnazionaleri buruz, giza eskubideei buruz, Gizarte Erantzukizun Korporatiboari buruz eta sistema normatiboen krisiei buruz. Liburu hauek idatzi ditu, besteak beste: *Las empresas transnacionales frente a los derechos humanos. Historia de una asimetría normativa* (Hegoa eta OMAL, 2009), *El negocio de la responsabilidad* (Icaria, 2009) eta *Diccionario crítico de empresas transnacionales* (Icaria, 2012). juan.hernandez@ehu.es

Erika González. Biologiako lizentziaduna (Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, UCM) eta Bakea eta Duintasuna - Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko (OMAL) ikertzailea. Enpresa transnazionalak Latinoamerikan izandako hedapenaren eraginak ikertu eta sistematizatu ditu. Argitalpen hauen egilea da, besteak beste: *Atlas de la energía en América Latina y Caribe* (OMAL, 2008), *Las multinacionales en Bolivia* (Icaria, 2010) eta *Empresas transnacionales e impactos en América Latina: 4 estudios de caso en El Salvador, Colombia y Bolivia* (OMAL, 2014). erika.gonzalez@omal.info

Pedro Ramiro. Zientzia Kimikoetako doktorea (Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, UCM) eta Bakea eta Duintasuna - Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko (OMAL) kidea. Ikerketak egin ditu espainiar multinazionaleri buruz, Gizarte Erantzukizun Korporatiboari buruz, garapenerako lankidetzari buruz eta enpresak nazioartekotzeko politikei buruz. Bere liburuetako batzuk hauek dira: *2.0* (Icaria, 2012), *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores. Bases para un encuentro necesario* (Hegoa, 2013) eta *Marca España. ¿A quién beneficia?* (Icaria, 2014). pedro.ramiro@omal.info



Noiz jaso: 2014/10/06

Noiz onetsia: 2014/10/28

Resumen

Las empresas transnacionales se han convertido en poderosos agentes que condicionan directa o indirectamente la producción normativa estatal e internacional, mediante acuerdos formales e informales a nivel mundial y mecanismos específicos de resolución de conflictos, al margen de los criterios y fundamentos del poder judicial. Así, mientras las compañías multinacionales protegen sus contratos e inversiones a través de una multitud de normas, convenios, tratados y acuerdos que conforman un nuevo Derecho Corporativo Global, la llamada *lex mercatoria*, no existen contrapesos suficientes ni mecanismos efectivos para controlar sus impactos sociales, laborales, culturales y ambientales. El Derecho Internacional de los Derechos Humanos y el Derecho Internacional del Trabajo se ven incapaces de contrarrestar la expansión del Derecho Internacional del Comercio como fundamento de toda la arquitectura económica globalizada.

En este contexto, diferentes movimientos sociales, pueblos originarios, sindicalistas, juristas, activistas y víctimas de las prácticas de las multinacionales vienen defendiendo desde hace años la necesidad de establecer mecanismos efectivos para el control de las empresas transnacionales. Todos ellos, junto con las organizaciones que forman parte de la campaña global *Desmantelando el poder corporativo*, han participado en la elaboración del *Tratado internacional de los pueblos para el control de las empresas transnacionales*, una propuesta alternativa para el ejercicio de un control real sobre las operaciones de las grandes corporaciones que se articula sobre la base de las ideas-fuerza que presentamos en este cuaderno.

Palabras clave: empresas transnacionales, derechos humanos, asimetría normativa, propuestas alternativas de control, movimientos sociales.

Laburpena

Enpresa transnazionalak estatuetako eta nazioarteko ekoi-zen normatiboa zuzenean edo zeharka baldintzatzen duten agente indartsuak izatera pasatu dira, mundu mailako akordio formal eta informalen bitartez eta gatazkak konpontzeko mekanismo zehatzen bitartez, eta botere judicialaren irizpideetatik eta oinarrietatik aparte. Gauzak horrela, konpainia multinazionalak Zuzenbide Korporatibo Global berria (*lex mercatoria* deitutakoa) osatzen duten arau, hitzarmen, itul eta akordio ugariren bitartez babesten dituzten bitartean euren kontratu eta inbertsioak, ez dago kontrapisu nahikorik edo mekanismo eraginkorrik horrek gizartean, lanean, kulturen eta ingurumenean duen eragina kontrolatzeko. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eta Lanaren Nazioarteko Zuzenbideak ezin diote aurre egin

Merkataritzaren Nazioarteko Zuzenbidearen zabalkundeari, arkitektura ekonomiko globalizatu ororen oinarri gisa.

Testuinguru horretan, gizarte-mugimenduak, jatorrizko herriak, sindikalistak, juristak, aktibistak eta multinazionalen praktiken biktimak aspalditik ari dira defendatzen enpresa transnazionalak kontrolatzeko mekanismo eraginkorrak finkatzeko beharrezana. Horiiek guztiak, *Botere korporatiboa suntsitzen* kanpaina globalaren parte diren erakundeekin batera, *Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako* izeneko dokumentua prestatzen aritu dira. Hain zuzen ere, dokumentu hori korporazio handien jardueren gaineko benetako kontrolerako proposamen alternatiboa da, koaderno honetan aurkezten ditugun indar-ideien oinarriaren gainean artikulatutakoa.

Gako-hitzak: enpresa transnazionalak, giza eskubideak, asimetria normatiboa, kontrolerako proposamen alternatiboak, gizarte-mugimenduak.

Abstract

Transnational companies have become powerful agents that directly and indirectly condition state and international normative production, through formal and informal agreements at the world level and specific mechanisms of conflict resolution, outside the criteria and foundations of judicial power. Thus, while multinational companies protect their contracts and investments through a host of norms, conventions, treaties and agreements that make up a new Global Corporate Law, the so-called *lex mercatoria*, there are neither sufficient counterbalances nor effective mechanisms for controlling its social, labor, cultural and environmental impacts. International Human Rights Law and International Labor Law are unable to counteract the spread of International Commercial Law as the foundation of the whole globalized economic architecture.

In this context, different social movements, originary peoples, trade unionists, jurists, activists and victims of the practices of multinationals have for years been defending the need to establish effective mechanisms to control transnational companies. All of them, together with the organizations that form part of the *Global Campaign to Dismantle Corporate Power*, have taken part in elaborating the *International Peoples' Treaty on the Control of Transnational Corporations*. This is an alternative proposal for exercising real control over the operations of the big corporations, which is articulated on the basis of the key ideas that we present in this notebook.

Key words: Key words: transnational companies, human rights, normative asymmetry, alternative proposals for control, social movements.

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| 1. Transnazionalen kontrola | 7 |
| 1.1. Enpresa transnazionalen boterea | 7 |
| 1.2. Kontrolerako mekanismoak eta arau lotesleak | 9 |
| 1.3. Enpresak eta giza eskubideak: Espainiako Estatua | 10 |
| 1.4. Herrien nazioarteko itunerantz | 12 |
| 2. Nazioarteko zuzenbidea eta kontrahegemonia | 15 |
| 2.1. Zuzenbidearen erabilera alternatiboa | 15 |
| 2.2. Nazioarteko Zuzenbidea eraldatzearen alde | 17 |
| 3. Herrien Nazioarteko Itunerako ideiak eta proposamenak | 21 |
| Aurkezpena | 21 |
| A. Testuingurua eta aurrekariak | 22 |
| B. Justifikazioa | 23 |
| C. Hitzaurrea | 24 |
| D. Alderdi juridikoa | 26 |
| 1. Itunaren esparrua | 26 |
| 1.1. Enpresa transnazionalak | 26 |
| 1.2. Nazioarteko ekonomia-finantza erakundeak | 26 |
| 1.3. Estatuak | 27 |
| 2. Printzipio orokorrak | 27 |
| Lehen atala. Giza eskubideak, estatuak eta enpresa transnazionalak | 27 |
| Bigarren atala. Giza eskubideak eta merkataritza eta inbertsio arauak | 28 |
| Hirugarren atala. Estatuak eta nazioarteko organismoak: marko normatibo orokorra | 28 |
| 3. Enpresa transnazionaleri begirako premisa eta proposamen juridikoak | 31 |
| 4. Enpresa transnazionalen betebeharrak espezifikokoak | 32 |
| 5. Nazioarteko krimenak | 34 |
| 5.1. Gizateriaren kontrako krimen ekonomikoak | 35 |
| 5.2. Nazioarteko krimen korporatiboak | 35 |
| 5.3. Nazioarteko krimen ekologikoak | 35 |
| 6. Instantziak | 35 |
| 7. Azken xedapena | 36 |
| Bibliografia | 39 |

I. Transnazionalen kontrola

I.1. Enpresa transnazionalen boterea

Kapitalismo globalak XIX. mendearen bigarren erditik gaur egunera izandako bilakaerak bultzaturik, finkatu eta sendotu egin da enpresa transnazionalak munduko ekonomian duten nagusitasuna, baita planetako bizitzaren hainbat arlotan duten gailentasun gero eta nabarmenagoa ere. Bereziki, azken lau hamarkadetan; izan ere, korporazio handiak ahalbidetu dituen arkitektura juridiko, politiko, ekonomiko eta kultural globala eraiki da, globalizazio ekonomikoko prozesuen eta politika neoliberalen hedapenaren eskutik (Hernández, González eta Ramiro, 2012). Hori dela eta, aurreko mendearen hirurogeita hamarrek hamarkadaz geroztik, eztabaida handiak sortu dira estatuetan nahiz nazioartean, korporazio transnazionalen giza eskubideak errespetarazteko kontrolerako mekanismoak eta arau lotesleak ezartzeko premiar buruz (Martín-Ortega, 2008).

Gaur egun, izan ere, estatu askok baino botere handiagoa dute enpresa transnazionalak ekonomian: Wal-Mart, Shell eta Exxon Mobil enpresek, adibidez, Austriaren, Hegoafrikaren eta Venezuelaren Barne Produktu Gordina (BPG) baino diru-sarrera handiagoak dituzte urtean; eta BP eta Volkswagen enpresek, bestalde, Ukraina eta Angolako BPGa halako biko salmenta bolumenak dituzte, hurrenez hurren (Buxton, 2014). Era berean, botere politiko ikaragarria ere badute korporazio handiek, ez estatu-nazioei dago kienez soilik –eragin agerikoa baitute kontraerreforma ekonomikoen garapenean eta gizarte-eskubideak ezabatzean–, baita nazioartean ere, alderdi anitzeko erakundeetan; Pingeoten arabera (2014:6), «enpresa arloko eragileek gero eta esku-hartze nabarmenagoa dute munduko gobernantzan, eragile anitzeko asko-

tariko eredu bidez, NBen bertan ikus daitekeen». Ukaezina da, halaber, funtsezko eginkizuna betetzen dutela subjektibotasun eta imaginario kolektiboen eraikuntzan, publizitatea eta *marketineko* teknikak erabiliz kontsumo gizartean duten limurtze eta komunikazio botere izugarria sendotzeko (Klein, 2001).

Arlo juridikoan, konpainia multinazionalen kontratuak eta inbertsioak babesten dituzten arau, hitzarmen, itun eta akordio ugari daude, eta horiek osatzen duten Zuzenbide Korporatibo Globala, *lex mercatoria* delakoa, baliatzen dute korporazio handiek beren eskubideak babesteko; baina, aldiz, ez dago kontrapisu nahikorik edo mekanismo eraginkorrik haiek gizartean, lanean, kulturaren eta ingurumenean duten eragina kontrolatzeko (Hernández, 2009). Enpresa transnazionalen eskubideak gotortu egiten dira, merkataritza eta inbertsio arau aginduzko, hertsagarri eta exekutiboetan oinarrituriko antolamendu juridiko global baten bidez; eta haien betebeharrak, berriz, logika neoliberalaren eta nabarmen ahula gertatzen den Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen mende nazio araudiek arautzen dituzte. Testuinguru horretan sortu dira Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) eta jokabide kode borondatezko, aldebakar eta derrigortasun juridikorik gabeak, zeinak baitira zuzenbide bigunaren molde bat (*soft law*), kontrol juridiko ororekiko formula alternatibo moduko bat (Shamir, 2007:86-101).

Bide horretatik, ahalmen handiko eragileak bihurtu dira enpresa transnazionalak, eta nabarmen baldintzatzen dute Estatuko nahiz nazioarteko ekoizpen normatiboa, zuzenean nahiz zeharka, mundu mailako akordio formal nahiz informalen bidez eta gatazkak ebazteko

mekanismo espezifikoen bidez, botere judizialaren irizpide eta oinarrietatik at (Teitelbaum, 2010:33-70). Gainera, bermatuta dute segurtasun juridiko erabatekoa, zilegitze irizpideei esker, zeinak men egiten baitiote botereari, demokraziari baino gehiago; eta ez da lantzen ari Zuzenbide Unibertsala, baizik eta Zuzenbide Globala, publikoa baino pribatuagoa. *Lex mercatoriak* multinazionalen boterea berrinterpretatzen eta formalizatzen du, nazioarteko ohitura eta usadioetan oinarriturik, estatu nazionalen arauetan eta alderdi anitzen arteko, eskualde mailako eta alderdi biko kontratu, hitzarmen, itun eta merkataritza eta inbertsio arauetan oinarriturik, baita arbitraje auzitegien erabakietan eta Munduko Merkataritza Erakundearen Desadostasunak Konponatzeko Sistemari oinarriturik ere.

Estatu zentralen eta enpresa multinazionalen arteko lotura politiko-ekonomikoak eta enpresa horiek nazioarteko finantza eta merkataritza erakundeengan egiten duten presioak bultzatuta, multinazionalen mesederako politikak eta araudiak eratu ohi dira. Hala, erakunde demokratikoen krisiak, gutxiengo merkatariak eskubideak gehiengoenei nagusitzeak, oinarri eta berme juridikoen birformulazioak eta *lex mercatoria* berriak sorrarazi duten arau esparruak nazioarteko merkataritza legedietara bideratu ditu transnazionalen eskubideak (Sousa, 2004). Multinazionalak nazioez haraindiko araubideen bitartez babesten dituzte beren eskubideak (estatu hartzaileen subiranotasuna ahultzen duten alderdi anitzeko, eskualdeko eta aldebiko arauen bidez), eta, aldiz, alde aurretik kapitalaren logikaren mende jarritako legedi nazionalak arautzen dituzte haien betebeharrak. Estatuak enpresa transnazionalak kontrolatzeko duten ahultasunarekin batera, azpimarratzekoa da nazioartean ez dagoela enpresa horiei erantzukizunak eskatzeko mekanismo eta instantziarik, nazioarteko eta eskualdeko sistemak ez daudelako korporazio handien kontrako salaketak jasotzeko moduan diseinatuta eta, horrez gainera, ez direlako betetzen eta exekutatzen eskualdeko eta nazioarteko organoen erabakiak.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eta Lanaren Nazioarteko Zuzenbideak ez dute gaitasunik arkitektura ekonomiko globalizatuaren oinarrian dagoen Merkataritzaren Nazioarteko Zuzenbidearen hedapenari aurre egiteko. Gizarte, lan eta ingurumen eskubideak baztertzeko ari dira, erregulazio sistema ez-normatiboen mende uzten ari dira, GEKren baitara bildutako sistema eta jokabide kodeetara mugatzen ari dira. Enpresa transnazionalak kontrolatzeko, ezinbestekoa da eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaleri erasotzen dieten jardura guztiak Zuzenbidearen mende jartzea, batetik; eta, bestetik, herri eta nazioen garapen eta subiranotasun eskubideari egokitzea enpresa horien jarduerak. Errealitateak kontrako bidea egin du, ordea, eta herrialde zentralen eta korporazio handien tesiak nagusituz joan dira, funtsean nahiz forman.

Azken bi hamarkadetan, korporazio transnazionalen hedapen globalak gaur egungo eredu sozioekonomikoari ekarritako ondorioak dokumentatu eta sistematizatu dituzte mundu osoko ikerkuntza, gobernu kanpoko erakunde eta gizarte-mugimenduek (Ramiro eta González, 2013)¹. Ikerlan horien emaitzek agerian utzi dutenez, enpresa transnazionalak ez dute hobekuntzarik ekarri enpleguan, ez kantitateari ez kalitateari dagokionez, ezta eskaintzen dituzten zerbitzuetan ere; ez dute egin ia mantentze inbertsiorik, eta ezer gutxi lagundu dituzte transferentzia teknologikoko prozesuak. Aldi berean, ekonomian ez ezik, gizartean, politikan, ingurumenean eta kulturaren ere ondorio larriak sortu ditu enpresa horien negozioen nazioartekotzeak (González eta Garay, 2014). Eta, gainera, eredu horren onuradun nagusiak ez dira izan langile klaseak eta gizartearen gehiengoa, baizik eta konpainia horien jabe handiak eta zuzendaritzako kideak (Ramiro, 2014:41-65).

Testuinguru horretan, enpresa transnazionalen jardura kontrolatzeko alternatiba zehatzak proposatu dituzte gizarte-mugimenduek, Herrien Auzitegi Iraunkorrak eta gizarte aditu eta ekintzaile askok.

1 Lan horien artean, aipatzekoak dira, adibidez, enpresa horiek gizartean, ingurumenean eta kulturaren izandako eragina mapatzeko honako erakunde hauek bideratutako ekimenak: Globalizazioaren Zorren Behatokia (ODG), FUHEM-Ecosocial eta Herri Indigenen Eskubideen aldeko Koordinazioa (CODPI). Nabarmentzekoak dira, halaber, herrialde, enpresa eta sektore ekonomikoari buruzko ikerketak, zeinetan nabarmendu baitira, Espainiako estatuko plataforma eta erakundeen artean, Arropa Garbia Kanpaina, Ekologistak Martxan, Nork nori zor?, Mugarik Gabeko Ingeniariak, SETEM, Centre d'Estudis per la Pau JM Delàs, VSF Elikadura Justizia Globala, Entrepueblos eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL)-Bakea eta Duintasuna, eta abar.

Ildo horretatik, hauek dira ideia aipagarrienak: kode lotesle bat onartzea, enpresa transnazionalak epaitzeko nazioarteko auzitegi bat sortzea eta enpresa horiei buruzko informazio zentro bat sortzea. Ideia horiek dira gizarte zibilaren proposamen alternatiboa eraikitzeko indargune nagusiak (Hernández, González eta Ramiro, 2012:186-188).

1.2. Kontrolerako mekanismoak eta arau lotesleak

«Gobernu arteko lantalde bat sortzea, enpresa transnazionalen jarduerak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera arautuko dituen eta legez loteslea izango den nazioarteko tresna bat sortzeko»². Erabaki horixe hartu zuen Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluak aurreko ekainean, Genevan, 26. bilkuran, eta, haren bidez, azalera atera du, berriro ere, konpainia multinazionalen giza eskubideak errespetarazteko nazioarteko arauak ezartzeko premiaren eztabaida.

Orain, *crash* orokorrak eta iaz Bangladeshko Rana Plazan gertatutako hondoratzearen antzeko tragedieki bultzatuta, indar betez lehertu da azken lau hamarkadetan mahai gainean egondako eztabaida. Ez dugu ahaztu behar, ordea, hirurogeita hamarrek hamar kadan Nazio Batuek lehentasuntzat hartu zutela korporazio handientzako nazioarteko jokabide kode bat lantzea, eta, aldi berean, abian jarri zituela Enpresa Transnazionalen Batzordea eta Zentroa. Orduan hasi zen enpresa transnazionalak hartzen ari ziren botere izugarriarekiko kezka mundu osoan zabaltzen; izan ere, Salvador Allende txiletar presidentea 1972. urtearen amaieran NBEko Batzar Nagusiaren aurrean egindako hitzaldi historiko batean esan zuen moduan, enpresa horiek «organizazio globalak dira, ez daude inongo estaturen mende, eta ez dute beren jardueren erantzukizunik eta fiskalizaziorik inongo legebiltzarren aurrean, interes kolektiboa ordezkatzeko duen inongo erakunderen aurrean».

Potentzia nagusiek eta enpresa arloko *lobbiek*, ordea, irmo aurre egin zioten beren negozio asmoak kolokan jar zitzakeen inolako araurik sortzeari, eta, hogeit

teren buruan, desegin egin ziren bi erakunde haiek eta ez zen nazioarteko inolako koderik landu (Teitelbaum, 2010). Haren ordean, GEK eta *Global Compact* deritzona agertu ziren laurogeita hamarrek hamar kadan amaieran, NBEren diskurtso ofiziala derrigortasunaren logikatik borondatearen logikara nola aldatuz joan den argi eta garbi erakusten duten ikurrak biak ere. Hala, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki hobetuz joan da sistema neoliberalaren merkantilizazioari atxikitako arau multzoa –eta sendotuz, korporazio transnazionalen gizaratean duten eragin izugarria; alderdi ekonomikotik nahiz juridikotik ez ezik, baita alderdi politikotik eta kulturaletik dutena ere–, eta bertan behera gelditu da haien jardueren gaineko kontrol erreala, *negozioaren etikaren* eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren eskuetan utzirik haien betebeharrak sozioekologikoak (Hernández eta Ramiro, 2009).

2005ean, Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Nazio Batuetako Azpibatzaileak bi urte lehenago onartutako *Enpresa transnazional eta bestelako merkataritza enpresentzako arauak* proiektuari entzungor eginda –eta amore emanaz Nazioarteko Merkataritza Ganberaren eta Enplegatzaileen Nazioarteko Erakundearen presioei, zeinak argudiatzen baitzuten proiektu horrek enpresen interes zilegiak urratzen zituela eta giza eskubideen esparruko betebeharrak estatuei dagozkiela, ez eragile pribatuei–, NBEren idazkari nagusiak ordezkari berezi bat izendatu zuen giza eskubideen eta enpresa transnazionalen auziaz arduratzeko. *Global Compact* ekimenaren aitzindari John Ruggiek hartu zuen kargu hori, eta 2011n amaitu zuen kargualdia, «babestu, errespetatu eta erremediatu» hirukotea praktikan jartzera dei egiten zuen txosten bat argitaratuta. Giza Eskubideen Kontseiluak urte hartan bertan onartu zituen Ruggiek sustatutako *Enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak*, baina, NBEren idazkaritza nagusiak 2012an argitaratutako azken txostenean aitortu zuenez, printzipio gidari horietatik «ez da ondorioztatzen inolako betebeharrak juridikorik».

«Enpresek giza eskubideak errespetatu behar dituzte», Ruggiek proposatutako markoan esaten denez: «Horrek esan nahi du inola ere ez dituztela urratu behar

2 Giza Eskubideen Kontseilua, *A/HRC/26/L.22 Ebazpena*, Nazio Batuek, Geneva, 2014ko ekainaren 26a.

hirugarrenen giza eskubideak eta beren gain hartu behar dituztela beren nolabaiteko parte-hartzeak giza eskubideei ekarritako orotariko ondorio negatiboak». Eta printzipio nagusi horretantxe oinarritu dira Nazio Batuek azkenaldian egindako proposamenak: eskubideak errespetatzeko erantzukizuna giza eskubideak babesteko lege eta arau nazionalen gehigarri bat litzateke; hau da, eskubideak babesteko erantzukizuna nazioarteko araudian jasota dago, eta errespetatzekoa, berriz, ez. Baina, hain zuzen ere, horixe da enpresa transnasionalek giza eskubideak urra ditzaten saihesteko eragozpen nagusietako bat: Nazioarteko Zuzenbidean betebeharrak gehiago ez txertatzea.

Hala, testuinguru honetan, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluak berriki emandako ebazpena lehen urratsa izan daiteke «zigorgabetasunaren arkitectura» dei genezakeena eraisten hasteko (Berrón, 2014). Izan ere, azken berrogei urteetan korporazio handiek eta haiek babesten dituzten estatuak –ezin konta ahala merkataritza itunen eta inbertsioak babesteko akordioen bidez, MMEren, NDFren eta Munduko Bankuaren milaka arauen bidez, arbitraje auzitegien bidez eta inbertsiogile-estatu arteko gatazkak konpontzeko mekanismoen bidez– eraikitako Zuzenbide Korporatibo Globalaren aurrez aurre, premiazkoa da haiek gizartean, lan arloan, kulturaren eta ingurumenean duten eragina kontrolatzeko kontrapisu nahikoak eta mekanismo eraginkorrak finkatzea. Beste era batera esanda: enpresa transnasionalen botere politiko, ekonomiko eta juridiko izugarria eta *lex mercatoriaren* indarra orekatzeko, irauli egin behar da piramide normatiboa, eta haren gailurrean jarri gizarteko gehiengoaren eskubideak, eta ez gobernatzeko gaituen klase politiko-enpresarialaren interes pribatuak.

1.3. Enpresak eta giza eskubideak: Espainiako Estatuak

Genevan, ekintza lotesleak eskatu zizkieten NBERi mundu osoko 500 erakundek, enpresa handiek giza eskubideen kontra egindako urratze eta abusuari aurre egiteko; bien bitartean, adierazpen honen bidez argitu zuen José Manuel García-Margallok Espainiako gobernuaren jarrera: «Korporazioek eskubidea dute toki

jakin batean kokatzeko garaian erabaki jakin batzuk inposatzeko». *Espainia marka* sustatzeari eta atzerriko inbertsioak erakartzeari buruzko jardunaldi batean egin zuen adierazpen hori Kanpo Gaierako eta Lan-kidetzarako ministroak³. Hala, giza eskubideen aldeko erakunde eta GGKE gehienek aldarrikatutakoaren kontrako bidean, gure gobernuak eutsi egin dio premisa bakar honetan oinarrituriko *segurtasun juridikoko* ideiarekin aldeko apustuari: merkataritza interesak garrantzizkoagoak dira giza eskubideak betetzea baino.

«Espainiako enpresentzat ona den hori ona da herrialdearen interes orokorarentzat» maximari jarraituz (Bonet, 2013:27), Espainiako gobernuak –gaur egungoak nahiz aurrekoek, estatuak iraunkorki babestu baitu enpresa handien negozioen nazioartekotzea azken hiru hamarkadetakoa Espainiako gobernuen eskutik– inolako zalantzarik gabe parekatzen ditu herriarren gehiengoaren interes komunak eta gutxiengo txiki baten negozio pribatuak, alegia, espainiar multinazionalen akziodun handi eta goi mailako exekutiboaren gutxiengoarenak, gutxiengo hori baita konpainia horien eragiketen hedapen globalaren onuradun bakarra, *ate birakarietan* biraka aritzean espezializatutako politikari eta enpresaburuekin batera. Haien arduradun gorenak aldarrikatu zuen arren «Guztiok gara *Espainia marka*: organismo eta entitate publikoak nahiz pribatuak, enpresak, fundazioak, *think tank* ekimenak eta, batez ere, gizarte zibila, gu guztiak, herri-tar guztiak» (Espinosa, 2013), benetako *Espainia markak* apustu hauxe egin du «krisitik irteteko», hau da, enpresa transnasionalek beren hazkunde eta pilaketa logikari jarraipena eman diezaioten ahalbidetzeko: lan baldintzak kaskartzea, soldatak murriztea, ingurumena suntsitzea, genero berdintasunik eza areagotzea eta gizarte-eskubideak galtzea (Ramiro, 2014).

Estrategia horri berari jarraitzen dio Espainiako gobernuaren *Enpresen eta Giza Eskubideen Plan Nazionalak* –aurreko ekainaren 26an bidali zitzaion Ministro Kontseiluari, onospena eman ziezaion, NBEk enpresa transnasionalei giza eskubideak errespetarazteko arau lotesleak sortzearen aldeko ebazpena onartu zuen egun berean, hain zuzen–, eta Nazio Batuen Printzipio Gidariak estatuan aplikatzera mugatzen da.

3 Multinacionales por marca España, “El valor de las multinacionales en España”, Madril, 2014ko ekainaren 24a.

Beraz, eztabaida juridiko eta politikoaren muinean jarri ditu, berriro ere, funtsezko zenbait auzi, hala nola, Zuzenbide Korporatibo Globalaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arteko asimetria, korporazio handien eraginen jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo eraginkorrak ezartzeko premia eta konpainia multinazionalen jardueraren kontrolerako proposamen alternatibo zehatzen beharra. Auzi horiekin batera, bereziki enpresek beren irabazi tasei eusteko negozioak sektore eta merkatu berrietara hedatzeko joerak ezaugarrituriko krisi global honen testuinguruan, funtsezko beste elementu batzuk agertu dira eztabaidan, esate baterako, estatuaren egintzek edo ez-egiteek beren lurraldeen mugetatik at inpaktuak sortuz gero haiei ezarri beharko litzaizkiekeen lurraldeaz kanpoko betebeharrak eta enpresa transnaziionalen erantzukizuna haien filial, hornitzaile eta azpikontratistetara hedatzea.

Edonola ere, Plana lantzeko ia bi urteko prozesua amaitu eta behin betiko onespina jaso zain dela –prozesu horrek barne hartzen zuen «gizarte zibilari kontsulta egitea», baina askoz ere kontu formalagoa izan da erreala baino, ez baitira kontuan hartu gizarte-erakundeen ekarpenak–, Plana urrundu egin da funtsezko zenbait auzitatik, adibidez, lurraldez kanpoko betebeharrak enpresa matrizeetatik hirugarren herrialdeetako beren subsidiarioei zabaltzea, giza eskubideen arloko arau aplikagarrien arteko mendekotasuna, banaezintasuna eta iragazkortasuna; agintarien gizarte eta zigor erantzukizuna; enpresa transnaziionalen Nazioarteko Zuzenbidea zuzenean betetzea; pertsona juridikoen zigor erantzukizuna eta inputazio bikoitza (Hernández eta Ramiro, 2014).

Estatuaren zereginari dagokionez, Planean asimetria nabaria ikusten da enpresei giza eskubideen gaineko aholkularitza emateko neurrien eta estatuak konpainia estatualen, funts publikoak jasotzen dituzten enpresen, estatuak kontratatutako enpresen edo estatuarekin merkataritza trukeak dituzten enpresen kontrolerako sistema osatzen duten neurrien artean: lehenak dira zehatzak, eta bigarrenak, aldiz, zehaztasunik gabeak, eta aholkularitza eta pizgarri hutsak planteatzen dituzte, beste behin ere, kontrolaren eta zigorraren orde. Gure iritzian, Estatuak ez luke aholkularitza eman behar enpresek beren jardueretan giza eskubideak nola errespetatu behar dituzten adierazteko; Estatuak

bere gain hartu behar luke enpresei giza eskubideak erregulatzen dituzten arauak betearazteko eta, hala badagokio, ez betetzeagatiko zigorra ezartzeko eginkizuna. Era berean, gure ustez, enpresek giza eskubideak errespetatzeko erantzukizuna izateak esan nahi du –Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 29. artikuluaekin bat etorrira– enpresa transnaziionalen betebeharra dutela esparru nazionaleko nahiz nazioartekoko legea betetzeko, eta, hala egokituz gero, dagozkien zehapenak jasotzeko (zibilak, zigor arlokoak, lan arlokoak edo/eta administratiboak). Horregatik uste dugu Espainiako Estatuak norabide horretan aurrera egiteko arau juridikoak onartu eta erreformatu beharko lituzkeela, eta, ez, Planean esaten den moduan, nahitaez bete beharreko arautegi bat huts egitea saihesteko pizgarri, sentsibilizazio eta jardunbide egokien aitortza sistema bat ezarri.

Aitzitik, Enpresen eta Giza Eskubideen Plan Nazionalaren hurrenez hurreneko zirriborroetan, gero eta gehiago arindu dira enpresa transnaziionalen jardunbideak giza eskubideen ikuspegitik modu eraginkorrean kontrolatzeko eskakizunak. Hala, oso zalantzazkoa da Plan horren baliagarritasuna, kontuan hartuta dagokion aginte judizialaren epai irmoa eskuratu zain egon beharko lukeela giza eskubideen errespetua bermatzeko eta eskubide horiek urratuz gero zigorra ezarri ahal izateko –diru-laguntza eta laguntza publikoetatik at uzte hutsa balitz ere–. Era berean, ez da behar bezain sakon aipatzen enpresa transnaziionalen eta haien filialen zuzeneko erantzukizuna, kanpoan uzten baitute gainerako ekoizpen katea –kanpoan geldituko litzateke, esaterako, Bangladeshko Rana Plazako hondoratzearen kasua eta Mango eta El Corte Inglés konpainiei legokiekeen erantzukizunaren partea besteak beste–; gobernuak fiskaltza berezi bat sortu beharko luke, eta giza eskubideen urraketari aurre egin, edonon egiten direla ere, erantzukizunaren printzipioa aplikatuz enpresa matrize, filial, hornitzaile eta azpikontratistek.

«Gizarte zibilarekiko elkarrizketarako» deiei jarraituz, Planaren lanketa eta jarraipena egiteko garaian, koordinazio eraginkorra bideratu behar zen korporazio transnaziionalen aurrez aurre giza eskubideen defentsan esperientzia duten gizarte eta sindikatu erakundeekin. Aldiz, gizarte-eragile eta interes talde inplikatu guztiekin baldintza berdinetan gauzatutako

elkarrizketa formal baten itxura eman zaion arren, prozesu horretan askoz ere pisu handiagoa izan dute korporazio handientzako lehiakortasun, errentagarritasun eta negozio aukerak, giza eskubideak betetzeari loturiko alderdiek baino. Azkenean, Planaren azken bertsioan aditzera ematen denez, *merkatuek* inposatutako irizpide makroekonomikoen mende gelditzen da dena: «Plan honen neurriak aplikatuz eratorritako konpromiso guztiak, nolahi ere, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu erabilgarriaren eta gobernuak finkatutako zerga kontsolidazioaren mende geldituko dira».

1.4. Herrien nazioarteko itunerantz

Testuinguru horretan, *Botere Korporatiboa Suntsitzen* kanpaina globalaren parte garen erakundeek urteak daramatzagu enpresa transnazionalen kontrolerako mekanismo eraginkorrak ezartzeko premia aldarrikatzen.

Ildo horretan kokatu behar dira, hain zuzen ere, *Alternatibak Elkarlotzen* sareak antolatutako hiru audientzia kontinentalak. Sare horrek Latinoamerika eta Europako hainbat elkarte biltzen ditu (sozialak, sindikatuek, ekologistak, emakumeenak...) eta enpresa transnazionaleri eta merkataritza askerako itunei aurre egiteko elkartasun eta erresistentzia loturak eratzen ditu bi eskualdeen artean. Hiru audientziak bat etorri ziren Europar Batasuneko, Latinoamerikako eta Karibeko estatuburu eta presidentek Vienan (2006), Liman (2008) eta Madrilen (2010) egindako goi bilerekin, hurrenez hurren. Audientzia horietan, politika neoliberalak eta transnazionalak Latinoamerikan dituzten ondorioak izan zituzten aztergai, eta korporazio handiak eskualde hartan nola sartuz joan diren eta horrek bertako herri eta ekosistemetan zer-nolako ondorioak izan dituen azaldu zuten dozenaka lekuko eta adituk auzitegiaren aurrean. Herrien Aldeko Auzitegiaren (HAA) bilkuretan enpresa transnazionaleri buruz aur-

keztutako kasuek berretsi egin dute haien gizaritean eta ingurumenean eragiten dituzten ondorioen izaera estrukturala: Madrilen egindako saioko irizpenak dioenez, kasu horiek guztiak «kontuan hartu behar dira, ez beren bakartasun elementuen arabera soilik, baizik eta jardunbideen izaera sistematikoak ezaugarritutako egoera baten adierazpen modura» (HAA, 2010).

Eta norabide horretan kokatzen da, halaber *Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako* proposamenaren egitasmoa, aurrerago adieraziko ditugun indar-ideietan oinarritua⁴. Izan ere, konpainia multinazionaleri aurre egiteko erresistentzia prozesuak sendotzearekin batera, gure ustez ezinbestekoa da mekanismo eraginkorrak ezartzea birbanaketa sozialeko eta korporazio handien kontrolerako, paradigma sozioekonomikoa aldatzeko bidea eman dezaten epe ertainera begira. Horrela, Polanyi –kapitalismo globalaren jatorriaz ari zela– «irabaziaren zioa» zeritzona⁵ ardatz izango ez duten bestelako ekonomia eta gizarte eredu batzuk eraikitzeke lanean dihardugun bitartean, pertsonen eta herrien eskubideak korporazio handien *segurtasun juridikoaren* mende egon daitezten saihes-tuko dugu, behintzat.

Bide horri jarraituz, konpainia horien eragiketen gaineko kontrol erreala gauzatzeko tresnak sortzearen, gizarte-mugimenduek, jatorrizko herriek, sindikalistek, legetariak, ekintzaileak eta multinazionalen jardunbideen biktimek *Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako* proposamena landu dugu elkarrekin: «Proposamen alternatibo erradikala, zeinak baitu xede, alde batetik, enpresa transnazionalen egindako giza eskubideen urraketak kontrolatzeko mekanismoak proposatzea; eta, bestetik, esparru bat eskaintzea komunitateen eta gizarte-mugimenduen artean aliantzak eratzeke eta trukea bideratzeko, gaur egun botere korporatiboek betetzen duten espazio publiko hori aldarrikatzeari begira». Itun hori sortzeko bidea eman duen lan kolektiboak azken hamarkadan

4 Hemen jaso dugu testua lantzeko, *Botere Korporatiboa Suntsitzen* kanpainari atxikitako erakundeek kontsulta egin zuten bere kideen artean (mundu osoko 150 erakundetik gora, horien artean Vía Campesina, Emakumeen Mundu Martxa, Lurraren Lagunak, Zerbitzu Publikoen Internazionala, Jubileo Sur, Seattle to Brussels Network, Transnational Institute, Ekologistak Martxan, Hegoa Institutua, eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia, OMAL – Bakea eta Duintasuna), nahiz legetari eta akademikoen artean; testu horri buruzko kontsulta zabala egingo da gero, eta batzar global baten bidez amaituko da prozesua, 2016. urtearen aurretik.

5 «Irabaziaren zioak martxan jarri zuen mekanismoaren efektuak kontuan hartuta, historian izan den oldarraldi erlijioso bortitzenarekin baino ezin aldera daiteke. Belaunaldi bateko tartean, haren eragin erregariaren mende gelditu zen biztanleak zituen mundu guztia» (Polanyi, 1989:66).

bildutako esperientzia jaso nahi da, enpresa transnaziionalen eta haiek babesten dituzten erakunde estatuen eta nazioarteko kontrako borroka abiapuntu hartuta. *Herrien itunak* dioenez, hau da helburua: «Nazioarteko Zuzenbidea “behetik” eraikitzea eta aztertzea: hau da, gizarte-mugimenduetatik eta gizon-emakumeen erresistentzietatik, eta ez estatuetan oinarrituriko elite ekonomiko eta politikoetatik».

Era horretan, transnaziionalei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen gobernu arteko lan talde sortu berriaren eskura jarri ditugu ehunka gizarte-erakunde *Herrien nazioarteko itunean* planteatutako proposamenak eta alternatibak. Hala ere, gure ustez, enpresa transnaziionalen jarduerak erregulatzeko nazioarteko araudi lotesle batek hiru auzi nagusi hartu beharko lituzke bere baitan, ezinbestean.

Lehenik eta behin, enpresa transnaziionalen erantzukizunarekin loturiko premisa orokor berri batzuk ezartzea. Hala, arau nazional eta nazioartekoek nahitaez bete beharrekoak izan behar dute pertsona natural eta juridikoentzat; transnaziionalak pertsona juridikoak dira, eta, hala diren heinean, Zuzenbidearen subjektu eta objektu ere badira. Horregatik, arautu egin behar da haien erantzukizun zibila eta zigor erantzukizuna eta inputazio bikoitza: alde batetik, inputagarria da pertsona juridikoa –enpresa–, eta, bestetik, egotzitako erabakia hartu zuten pertsona fisikoak –entitatearen zuzendariak–. Arautu behar da, halaber, giza eskubideak urratzen dituzten izatezko edo eskubidezko filialen, hornitzaileen eta azpikontratisten jarduerengatik enpresa transnaziionalek duten erantzukizuna.

Aldi berean, enpresa transnaziionalen betebeharrak espezifikoki arautu behar dira, besteak beste, adibidez, bizitza moldeak patentatzeko debekua, hornitzaile eta azpikontratistei prezio justu eta bidezkoak ordaintzeko betebeharra, multinaziionalen zerbitzuko segurtasun langileen kontrola eta diskriminazioa debekatzen duten arau guztien errespetua. Hirugarrenik, zenbait instantzia martxan jartzea proposatzen dugu, hala nola korporazio handiak kontrolatzeko zentro publiko bat eta enpresa transnaziionalen eta giza eskubideen munduko gorrea, multinaziionalak eta haien gidariak epaitzeko, pertsonen eta naturaren eskubideak urratuz gero.

Nazioarteko legea ezin eraiki daiteke estatuak ardatz bakartzat harturik; dagokien tokian jarri behar dira erresistentzian ari diren gizarte-mugimenduen eta herrien protagonismoa eta aitortza. Saguierrek dioen moduan (2010:11), «indarrean dauden akordioen izaera eta bilakaera horren aurrera begirako balizko joerak azaltzeko, mendeko indarren eta indar menderatzaileen arteko gatazkak hartu behar dira abiapuntu». Pertsonen eta herrien garaia da, Nazioarteko Zuzenbidea eta Giza Eskubideak mundu osoan milaka erakunde eta milioika lagunek egindako borroka esker lortu ditugula ahazten ez dugunon garaia. Hor kokatzen da, hain zuzen ere, «oraingo eta etorkizuneko Herrien nazioarteko ituna, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien erantzukizunean eta etikan eta Lurra eta Lurreko biztanleak babesteko betebeharrean oinarritua».

2. Nazioarteko zuzenbidea eta kontrahegemonia

2.1. Zuzenbidearen erabilera alternatibo

Zuzenbidea enpresa transnacionalen kontrolerako sistema gisa modu alternatiboan erabiltzeko, lehenik eta behin, zehaztu beharko da zer ulertzen dugun globalizazio kontrahegemoniko gisa. Boaventura de Sousa-ren arabera (2007:31), «globalizazio hegemonikoaren emaitza ekonomiko, sozial eta politikoen kontra borrokan diharduten sare, ekimen, erakunde eta mugimenduen multzo zabal bat da globalizazio kontrahegemonikoa. Erronka jotzen die hegemoniaren atzean dauden munduaren garapenari buruzko ikuspegeiei, eta ikuspegi alternatiboak proposatzen ditu, aldi berean». Ildo horretatik, nazioarteko sare kontrahegemonikoekin lotura du *Herrien nazioarteko itunak*, eta herrien eta komunitateen erresistentzien logikatik eraikitzen da (Tarrow, 2005; Calle, 2005:75-108; Antentas eta Vivas, 2012:91-130).

Kontrahegemonia eraikitzeke oinarriak nazioarteko itun proposamen horretan nagusietan jasota daude. Globalizazio kapitalistaren efektu negatiboak –hau da, botere harreman asimetrikoen efektu negatiboak– herrien eta gizarteko gehiengoan esplotazioa eta bazterketa dira; gizarte-mendekotasunaren molde transzentalak, biak ere. Hala, birbanaketa eta aitortza dira kontrahegemonia eraikitzeke ardatzak eta justiziaren paradigma berri bat eraikitzeke parametroak. «Banaketarako borroken logika talde desberdintasunak –klase desberdintasun diren heinean– abolitzera, edo, gutxienez, arintzera bideratuta dago. Hau da, eraldatzaileak dira, langileriaren desberdintasuna aitortu ordez klasearen garrantzia arintzea edo hartatik haratago jotzea aldarrikatzen duten heinean. Aitortzaren aldeko borroketan, aldiz, desberdintasun horiek nabarmentzea da helburua (horretan adibide

dira *gay* eta lesbianen eskubideak, esaterako); kulturen dekonstrukzioaren leinari eta ekonomian birbanaketarenari jarraitzen diote borroka horiek», Nancy Fraserrek dioenez (2007:1-7), zeinak beste dimentsio bat gehitzen baitio justizia globalaren berrinterpretazioari: ordezkartza, printzipio berri gisa, esan nahi baitu «munduko edozein tokitan hertsapenez aplikatzen diren arau batzuk eratzen dituen gobernazio egitura bati (transnacional, nazional nahiz azpinazionala) atxikitako orok izan behar duela erabakiak hartzen parte hartzeko aukera». Merkataritzaren Mundu Erakunde (MME) da horren adibide zehatz bat. Nazioarteko jurisdikzioen konkurrentzia justiziaren merkantilizazio nabarmena eragiten ari da, eta hortik ondorioztatzen da haren demokratizazioan sakondu beharra dagoela (Pradelle, 2000).

Deskribatutako premisa horiek dira arazoaren muinera jotzen duten jardura kontrahegemonikoak eraikitzeke oinarria. Era berean, jardura horiek Zuzenbidearen erabilera alternatiboetan eragin behar dute, justizia globalaren forma berri baten adierazpide izango bada. Botere harremanak eta berdintasunik ezaren eta bazterketaren ondorioak Zuzenbidean formalizatzen dira, ordea, eta, hala, Zuzenbidea tresna kontrahegemoniko gisa erabiltzeko, agerian utzi beharra dago Zuzenbidearen eta Justiziaren ikuspegi nagusien arteko lotura. Ikuspegi horiek kolokan jarritz, kolokan jartzen dira haiek atxikita dituzten gizarte-prozesuak (Harvey, 2007:198).

Azken auzi horrek isla argia du Nazioarteko Zuzenbidean. Purezaren iritziz (2007:240), solidaritateak eta kooperazioak moztzeko gisa dihardute; nazioarteko harremanak egituratzen dituzten biolentziaren,

injustizien eta esplotazioaren mozorro gisa, alegia. Zuzenbidea indartsuen eta ahulen arteko erlazioak formalizatzeko bide gisa ikusten duen ikuspegi horrek indarrean jarraitzen du gaur egungo Nazioarteko Zuzenbidean. Hori dela eta, haren erabilera kontrahegemonikoa indar hegemonikoek baldintzatuta dago, indar horiek haren erabilera alternatiboak eta orotariko erresistentziak higitzen baitituzte: «Funtsezko xedea belaunaldi barneko eta belaunaldi arteko berdintasuna denean, indar horiek nahiago dute Nazioarteko Zuzenbidearen izaera tradizioz biguna, eta ez derrigorrezko betearazpenerako mekanismo instituzionalez hornituriko ordena legegile bat» (Pureza, 2007:248).

Berrespen hori nabarmentzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE), Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) eta Nazio Batuen (*Global Compact* eta Printzipio Gidariak) esparruan enpresa transnazionalen kontrolarekin loturik eraikitako «zigorgabetasunaren arkitekturan». Izan ere, zuzenbide bigunaren eskemari jarraitzen diote, eta Zuzenbide Korporatibo Globalaren baliokide izango den aginduzko zuzenbidearen berrinterpretazioak orotariko erresistentzia hegemonikoak topatuko ditu, arautzearen arloan Gizarte Erantzukizun Korporatiboa sustatzeari lotuak (Hernández, 2009:367-501).

Hortaz, Zuzenbidearen erabilera alternatiboak transnazionalen kontrolari buruzko honako joera politiko, sozial eta juridiko hauek zehaztea eskatzen du –erakundetze moldeen arabera–:

- a. Kontuan hartu behar dira enpresa transnazionalen kontrolerako espazio global, nazional eta lokalak –ikuspegi normatiboetatik nahiz mekanismo sozial eta sindikaletatik– (Sousa, 2007:32-33). Estatuaz gaidiko nahiz azpiko pluralismo juridikoak ikeritu beharko dira multinazionalen kontrolerako lankidetzaren sistema juridiko eta sozial gisa⁶ (Klug, 2007:109-127).
- b. Zuzenbidearen erabilera alternatiboak haren erabilera legal, alegal eta ilegala dakartzak; zilegitasunaren

aurrez aurre legalitatea ezartzen duen berrinterpretazio kontzeptuala berriro agertzen da giza eskubideen esparruan. Transnazionalak lurra okupatzen dituztenean (lurren okupazio legal-nazionala), zaila da biziraupenerako eskubidearen esparruan erabilera legalera mugatzea, giza eskubideen sistema normatiboaren zilegitasunetik at egonik.

- c. Enpresa transnazionalak egiten duten zuzenbide gogorraren (Korporatibo Globala), bigunaren (jokabide kodeak eta GEK) eta ahularen (Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea) erabilera haren erabilera kontrahegemonikoan txertatu behar dira (Rodríguez, 2007:61-85). Enpresa multinazionalen kontratuak birnegoziatzean, hierarkia normatiboan beheratu behar dira korporazio transnazionalak, gizarteko gehiengoaren eskubideen mesedetan. Jokabide kodeak, bestalde, autoorganizazioarako eta borroka eta erresistentzia sustatzeko lagungarri zai-zkien heinean soilik izango zai-zkie baliagarriak gizarte-mugimenduei.
- d. Zuzenbide ofiziala egitura hegemoniko menderatzailearen parte da, eta ekintza politikoaren mende jarrita soilik bihurtuko da tresna kontrahegemoniko. Konfrontazio demokratikoa eta erresistentzia dinamikak ezin jar daitezke sistema juridikoen mende, hark baldintzatu ezin duen bezala borroka eta mobilizazioen judizializazioa, uztarrezinak baitira, oro har, baten eta bestearen zilegitasun iturriak, «egiteko moduak» eta are hizkuntzak ere (Shamir, 2007:108).

Enpresa transnazionalen kontrolerako *Herrien nazioarteko ituna* prestatzeko, kontuan hartu dira Zuzenbidearen erabilera alternatiboaren indarguneak eta ahultasunak, eta hortik ondorioztatu da premiazkoa dela herrien borroka eta erresistentziak artikulatzea eta Nazioarteko Zuzenbidea berrinterpretatzea; *Herrien nazioarteko itunak* aldagai juridikoak, politikoak eta erresistentzia dinamikak ditu elikagai (Hernández, González eta Ramiro, 2012).

6 Ezinbesteko aldarrikapena da nazioarteko finantza eta merkataritza erakundearen, eskualde eta alde biko merkataritza eta inbertsio itunen, legedi nazionalen eta estatuek azpiko legedien gaineko kontrol demokratikoa areagotzea. Edonola ere, erabilera alternatiboak orobat eskatzen du giza eskubideen nazioarteko legeak, subiranotasun nazionalari buruzko lege nazionalak eta estatuek kanpoko esparruko erregulazioak sustatzea eta babestea (Rodríguez eta Arenas, 2007:217-237).

2.2. Nazioarteko Zuzenbidea eraldatzearen alde

Herrien nazioarteko ituna ez da oinarritzen Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegi ofizialean, estatuen eta estatu arteko organismoen diplomaziatik urruneko ikuspegi batean baizik. Rodríguez Garavitok dioen bezala (2007:10), gure ustez, «Nazioarteko Zuzenbidearen “goitiko” ikuspegi bat da nagusi, elite politiko eta ekonomikoek azaldua, nazioarteko erlazioen aktore zilegi bakartzat estatua hartzen duten eliteek azaldua». Hala, ekintza publikorako moldeak berre-raiki behar dira, Estatuaren ikuspegi tradizionala alde batera utzirik: «Nazioarteko Zuzenbidea inoiz ez da kezkatu gizarte-mugimenduz nagusiki, autodeterminazioari eta estatuen eratzeari dagokienez izan ezik. Gainerako mugimendu eta herri protesta guztiak Estatutik “kanpo” baleude bezala hartu ditu, eta, beraz, zilegitasunik ez balute eta istilutsuak balira bezala. Politikaren ikuspegi liberalaren ondorioz gertatzen da bereizketa hori, argi eta garbi bereizten baititu errutinazko politika instituzionala eta instituzioez kanpoko protesta moldeak» (Rajagopal, 2005:331).

Bestalde, gizarteko gehiengoaren eskubideak *aurrerabidea* eta *garapena* kontzeptu liberal historikoei lotuta ageri dira, eta gizarte-mugimenduentzat behar-beharrezkoa da armadura hori gainditzea. Izan ere, Naredok dioenez (2013:25), «aurrerabide edo zeremonial demokratiko-merkantiletan fede itsua izateak, kamustu egiten duenez herritarren inplikazioa, atzerapenerako eta despotismorako bidea zabaltzen du». Hala, erro-errotik berreinterpretatu behar dira *Estatua*, *garapena*, *aurrerabidea* eta *giza eskubideak* ideiak, eta ezabatu, Nazioarteko Zuzenbidearen eta garapenaren artean ezarritako harmonia liberala. Rajagopalen arabera (2005:61), «Lehen Munduan eta Hirugarren Munduan arreta gehiago jarri balute, juristak askoz ere kritikoagoak izango ziren garapena giza duintasuna bermatzeko oinarri gisa merkatuak gidatutako oparotasun globaltzat ulertzen duen ideiarekin. Tradizio horien artean daude XVII. mendeko *leveler* ingelese- na, XVIII. mendeko *sans culottes*enak, XIX. mendeko ingeles kartistenak eta baserritar populistenak, XIX. mendean kolonietan gertatutako nekazari matxinadenak, eta XX. mendeko mugimendu feministenak, langile kontseiluen aldekoenak eta ingurumen justiziarenak».

«Jatorritik bertatik, Nazioarteko Zuzenbidea balio bi-koitzeko tresna izan da», hala dio Purezak (2007:250), eta zehazten du «erlazio duala izan duela beti nazioarteko boterearekin: alde batetik, herrialde ahaltsuenen lehentasunak juridikoki finkatzeko ezarri da; eta bestetik, herrialde horien beren nazioarteko portaera mugatzeko». Hala, itun honek bat egiten du Nazioarteko Zuzenbidearen «behetikako» ikuspegiarekin; horrez gainera, bere egiten du, esaterako, herri indigenek Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Ituna edo Herri Indigenen Eskubideen gaineko Nazio Batuen Adierazpena lortzeko bideratutako mobilizazioen eta konfrontazioaren lekukoa.

Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako lotuta dago Nazioarteko Zuzenbidearen eraldaketa erradikalarekin, zeina egokitu behar zaien funtsezko honako premisa hauei, gutxienez:

1. Nazioarteko legea ezin eraiki daiteke estatuak ardatz bakartzat harturik; tresna legal klasikoez birjabetzeak eta horiek berrituz lantzeak erronka jotzen dio ordena juridiko-politikoko paradigma gailenari. Hala, herri indigenen kontsulta eskubidea, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean arautua, berrezaugarritu eta berreraiki egiten da, kontsulta iraukorreko biltzar bidezko prozesuetan. Herriak nazioarteko legearen subjektu eratzaile gisa ezaugarritzen dira, eskubide berriak proposa eta aldarrika ditzakete.
2. Nazioarteko zuzenbidea esparru bereizi eta ustez autonomoetan banatzen delako usteak horretarako bidea ematen dienez, enpresa transnazionalak eta botere korporatiboek kapital handiaren arau ekonomikoak eta politikoak inposatzen dizkiete gizarteko gehiengoei, sektore gailenen onurarako interpretatuta nazioarteko arauak. Horregatik da funtsezkoa eta ezinbestekoa nazioarteko piramide juridikoa iraultzea eta kodetze normatibo berri bat sortzea, argi adieraziko duena Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea –Lanaren Nazioarteko Zuzenbidea eta Ingurumenaren Nazioarteko Zuzenbidea barne– hierarkian gorago dagoela merkataritza eta inbertsio arau nazional eta nazioartekoak baino, aginduzko izaera duten eta *erga omnes* obligazioak diren heinean, hau da, nazioarteko komunitate osoarenak eta nazioarteko komunitate osoarentzakoak.

3. *Herrien nazioarteko itunaren* xedea da herrien eskubideen eskagarritasunean eta justiziagarritasunean aurrera egitea, enpresa transnaziionalen eskubideak babesten dituen «zigorgabetasunaren arkitekturaren» aurrez aurre; alde batera utzi beharrekoak dira borondatezko eta aldebakarreko kontu emate hutsaren gisako kontzeptuak –kontzeptu horrek, esaterako, Nazio Batuak kolonizatu ditu–.
4. Edonola ere, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak printzipio sorta bat ezartzen du, baina interes korporatiboek baztertu eta berrinterpretatu egiten dituzte printzipio horiek enpresa transnaziionalen onurarako, honako hauek esaterako:
 - Giza eskubideak eta horiek aplikatzeko arauak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mende-koak dira.
 - Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea honako ardatz hauetan oinarritzen da: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena eta Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna eta horien Aukerazko Protokoloak –Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna eratzen dutenak–, baita nazioartean onartutako adierazpen, irizpide, ohartarazpen eta printzipioak ere.
 - Nazioarteko Zuzenbidearen iturri sistema Justiziako Nazioarteko Gortearen Estatutuaren 38. artikuluan jasota dago, eta honako hauek eratzen dute: nazioarteko konbentzioak –orokorrak nahiz partikularrak–, nazioarteko ohitura, munduko sistema juridikoek aitortutako zuzenbidearen printzipio orokorrak, arau juridikoen iturri nagusiak eta sortzaileak diren heinean, eta erabaki juridikoak eta kompetentzia goreneko legelarien doktrinak, indarrean dauden arauen iturri lagungarri eta interpretaziorako iturri gisa. Nazioarteko Zuzenbidean, nazioarteko itunen balio juridiko bera du ohiturak, eta Nazioarteko Zuzenbide ohiturazkoa dago indarrean eta derrigorrezkoa da. Giza Eskubideen Nazioarteko gutuna horren osagarri da, eta nazioarteko

komunitatearen funtsezko interesak babesten eta jasotzen dituen aginduzko arau bete-betea da –edo *ius cogens araua*–. Eta Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren 53. artikulua araberak, aginduzko arau bat ezin indargabetu daiteke eta ez dago haren kontrako akordiorik hartzerik aginduzko ez den beste arau baten bidez.

- Enpresa transnaziionalek eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeek herrien eta estatuen subiranotasuna errespetatu behar dituzte, garapenerako eskubidearen, bizimodu onaren eta ondasun komunen errespetua aintzat hartuta.
 - Enpresa transnaziionalek, nazioarteko erakundeek eta estatuek errespetua zor eta men egin behar diete Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea eratzen duten arau, gomendio eta adierazpenen xedapenei⁷.
5. Nazioarteko konstituzio demokratiko berri batek aro berriko giza eskubideen eta printzipioen plurtasuna ezarri behar ditu; estatuek nazioarteko arau multzoa berrestek nazioarteko ordenaren euskarri izateari utzi behar dio. Hauek dira, ildo horretatik, aintzat hartu beharreko oinarri berriak:
 - Herri guztiek dute autodeterminazio eskubidea eta beren norabide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala askatasunez erabakitzeko eskubidea, baita garapen autonomo, harmoniko, iraungarri, autozentratu eta eskualdeen garapen inklusiborako eskubidea ere, bizimodu onerakoa, zerbitzu publikoetarako eta ondasun komunetarako bezalaxe. Gizarte-mugimenduek eta herriek eraikitako balio eta proposamen berrietatik eta naturaren eskubideetatik abiatuta berreinterpretatu behar da garapenaren kontzeptua.
 - Estatuen, herrien eta gizon-emakumeen arteko berdintasun subiranoa, aberastasunaren banaketa ekitatiboa eta naturarekiko errespetua dira herrien eta pertsonen arteko nazioarteko solidartatearen esparruan nazioarteko proposamen politiko, ekonomiko eta juridiko berri bat eraikitzeko printzipioak.

7 Gai hori hainbat ikuspegitatik landu izan da; azkenaldiko ekarpenen artean, honako hiru hauek dira bereziki nabarmentzekoak: Gutiérrez eta Cervell (2012); Bonet (2013) eta Zamora, García eta Sales (2013).

- Nazioarteko proposamen demokratiko eta berdintasunezko berri bat ezinbestean lotuta dago oinarritzko giza eskubideekin. Nazioarteko sistema juridiko berria eraikitzeko oinarri nagusitzat hartu behar dira Nazio Batuen Gutuna, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Giza Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenak eta horien protokoloak, giza eskubideei buruzko nazioarteko konbentzio orokor nahiz partikularrekin, nazioarteko ohiturarekin eta zuzenbidearen printzipio orokorarekin batera.
 - Ezinbestekoa da giza eskubideen gorputz normatiboak osatzen dituzten testuak birfundatzea, eta beharrezkoa da prozesu eratzailerik bat abian jartzea, gizonen eta emakumeen eta gizarte-mugimenduen aldarrikapenak biltzeko eta eskubide berriak gidatzeko, gutxienez, honako arlo hauek: bakea, solidaritatea, bizimodu ona, natura, elikadura burujabetza, demokrazia eta Estatuak, nazioarteko migrazioak, emakumeen eta jatorrizko herrien sexu eta ugalketa osasuna eta gutxiengoaren eskubideak.
6. Nazio Batuen Gutunak hegemonia aitortzen die potentzia handiei nazioarteko harremanetan. Segurtasun Kontseiluak bost kide iraunkor ditu beto eskubidea dutenak, eta, horrek ahobatekotatasunaren araua dakarrenez, edozein erabaki blokeatzeko boterea dute kide horietako edozeinek –Estatu Batuak, Frantzia, Erresuma Batua, Txina eta Errusia–. Horregatik da beharrezkoa eraldaketa erradikala, gizarteko gehiengoaren eskubideen defentsa ardatz harturik; nazioarteko sare instituzionalak formulazio erradikal berri bat behar du, herrien eta pertsonen ordezkariak har dezan protagonismo nagusia (Patomäki eta Teivainen, 2008:31-131).
7. Beto eskubidea ezabatu behar da, gutxienez, eta Segurtasun Kontseiluak men egin behar dio nazioarteko legalitateari; Nazioen Batzar Nagusian kide gehiagok parte hartu behar dute, eta erakunde horrek eskumen gehiago izan behar ditu, baita legebiltzar, herri eta komunitateetako ordezkariak ere, nazioarteko benetako pluraltasuna sendotzeko. Nazioarteko Zuzenbidea Nazio Batuen Batzar Nagusiari atxiki behar zaio, nazioarteko pluraltasunaren erakunde nagusia den heinean (Sartorius, 2001:141-143; Attali:2012).

Azkenik, *Herrien nazioarteko itunaren* eduki juridiko-politikoari dagokionez, Herrien Auzitegi Iraunkorrrak hainbat epaitan ezarritako doktrina biltzen du itunak. Enpresa transnationalek giza eskubideen urraketa sistematikoarekiko duten erantzukizuna estatutu matrize, hartzaile eta ekonomia-finantza erakunde ere badagokie; *Herrien nazioarteko itunak* erantzukizunaren lau erpin horiek zehazten ditu. Hau da, ez dihardu enpresa transnacionalen erantzukizunaz soilik. Eta, bestalde, barne hartzen ditu egiletasun, konplizitate, laguntza, akuilatze, eragite eta estaltzearen arlo konplexuak ere.

Enpresa transnacionalen erantzukizuna bi ataletan sailkatzen da.

Lehen atalak premisa eta proposamen orokorrak biltzen ditu: arau nazionalak edo nazioartekoak nahitaez bete behar dituzte pertsona natural eta juridikoek; enpresa transnacionalak pertsona juridikoak dira, eta, hala diren heinean, Zuzenbidearen subjektu eta objektu dira; enpresa transnacionalen zuzendariak pertsona fisikoak dira, eta haien artean ere bete beharrezkoak dira indarrean diren arau juridikoak; enpresa transnacionalek erantzukizun solidarioa dute beren filialekiko (*de jure* edo *de facto* filialekiko), baita hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileen katearekiko ere, transnacionalekin partekatzen baitute horiek guztiek eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak urratzeagatik erantzukizuna, jarduera ekonomikoen bidez elkarri lotuta dauden heinean. Korporazio handiek beren filial, hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileekin duten erantzukizun solidarioaren auzi hori funtsezkoa da, kontuan hartuta enpresa transnacionalen ohiko jokabidea zein den, alegia, kostuak, arriskuak eta horiei atxikitako erantzukizunak kanpora ateratzea, mozkin handiak lortzearekin batera.

Bigarren atalak enpresa transnacionalen betebeharrak espezifikoez dihardu: enpresa transnacionalek, haien izatezko edo eskubidezko filialek, hornitzaileek, azpikontratatistek eta lizentzia-hartzaileek aintzat hartu behar dituzte giza eskubideen lehentasunaren printzipioa eta interes publikoak interes ekonomiko partikularren gain duen nagusitasunaren printzipioa; diskriminazioa debekatzen duten arau nazionalak eta nazioartekoak errespetatu behar dituzte; emakumeen eskubideak errespetatu behar dituzte; migrazioei eta

ingurumenari buruzko arauak errespetatu behar dituzte; eta ezin dituzte beren zerbitzurako erabili estatuko indar armatuak edo segurtasun indarrak, ezta milizia pribatuak kontratatu ere. Segurtasun zerbitzu pribaturik kontratatuz gero, araudi zorrotz baten mende jardun behar dute zerbitzu horiek, beren funtzioak zuzen gauzatzen dituztela bermatzeko, indarra erabiltzeko baldintzak bermatzeko, eta agintarien ikuskaritza bermatzeko; eta, zer enpresarentzat lan egiten duten, ezin dute enpresa horren esparrutik kanpo ez jardun.

Azkenik, Herrien nazioarteko ituna, transnazionalen kontrolerako itunaren azken bi ataletan nazioarteko krimenak eta kontrolerako instantziak zehazten dira.

Gizateriaren kontrako nazioarteko krimenei dagokienez, ekonomia, finantza eta ekologia delituetan sakondu nahi da, horiek gizateriaren kontrako krimentzat harturik. Horretarako, tipo penal eta kontrolerako nazioarteko instantzia berriak onartzea proposatzen da. Nazioarteko krimenen esparrua zabaldu beharra dago, barne har ditzan doikuntza politikak, zor ilegal eta bidegabearen ordainketa, baliabide naturalen ustiapena, komunitateari oro har eragiten dioten delitu ekonomikoak, elikadura espekulazioa, haurren lana... Nazioarteko krimen ekonomiko eta ekologiko gisa tipifikatu behar dira eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen kontrako urratze larri eta masiboak eta ingurumenari eragindako kalte larriak, nahita edo zabarkeria errudenez eraginak.

Hala, troikak hartutako neurriak, adibidez, greziar herritarrak muturreko baldintzetara behartzen ari direnak, gizateriaren kontrako krimen edo genozidioztat tipifika litezke. Eta horien ardura duten pertsona fisikoak –Europako Kontseiluko kideak (EBko presidente eta lehen ministroak eta Europar Batzordeko presidentea), MDFren Administrazio Kontseilukoak eta Europako Banku Zentraleko Kontseilukoak– salatu eta Nazioarteko Zigor Gortearen aurrera eraman litezke; goian aipatutako buruzagien kontra, Nazioar-

teko Zigor Gortearen Estatutuaren (Erroma, 1998) 6. artikulua (genozidioa; c atala) eta 7. artikulua (gizateriaren kontrako krimenak; k atala) argudia daitezke, auzitegietan, indarrean dagoen zuzenbide gisa (Teitelbaum, 2010).

Washingtongo Kotsentsua, gaur egun *Bruselako Kotsentsua* deritzona, ongizate estatuaren erakundeen pribatizazio, desregulazio eta krisien hirukotean oinarritzen da. Batasuneko araudi egokituak talka egiten dute gizarte-eskubideak betetzeari buruzko atzeragarritasunik ezaren printzipioarekin. 1996ko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunak dio gizarteko gehiengoaren eskubideen mesederako erabili behar dituztela botere publikoek baliabide erabilgarriak. Hala, bada, atzeragarritasunaren debekua urratzeak urratu egingo luke nazioarteko itun hori, zeina baita derrigor bete beharreko araua⁸.

En el último apartado, referido a las instancias, Azken atalean, instantzien atalean, enpresa transnazionalak kontrolatzeko sistemak onartzeko premia aipatzen da, honako bide hauek abiapuntu hartuta: sistema nazionalak hobetzea; lurraldez kanpokotasuna onartzea; jurisdikzio unibertsala aldatzea eta Korporazio Transnazionalen Munduko Gortea onartzea. Eta, horrekin guztiarekin batera, indarrak gabe uztea enpresa transnazionalen eta estatuaren arteko gatazkak ebazteko nazioarteko arbitraje panelak.

8 Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeak, 48. bilkura aldian (2012ko apirilaren 30etik maiatzaren 18ra) «dei egiten dio Estatu partaideari –Espainiari– hartu beharreko legegitza neurrik har ditzan, giza eskubideen banaezintasun, unibertsaltasun eta elkarrekiko mendekotasunaren printzipioen arabera, ekonomia, gizarte eta kultura eskubideak bermatzeko, eskubide zibil eta politikoei aplikatzen zaien neurrian babesteko eskubide horiek. Era berean, Batzordeak Estatu partaideari gomendatzen dio har ditzala neurri egokiak auzitegi nazionalak Itunaren xedapen guztien erabateko justiziagarritasuna eta aplikagarritasuna berma dezaten».

3. Herrien Nazioarteko Itunerako ideiak eta proposamenak

Aurkezpena

I

Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnaziionalen kontrolerako proposamena enpresa transnaziionalen jarduerak kaltetutako gizarte-mugimenduek, jatorrizko herriek, sindikalistek, adituek, ekintzaileek eta komunitateek landu dute.

Ekimen honen helburu nagusia da enpresa transnaziionalen botereak euskarri duen arkitektura juridiko-politiko giza eskubideak babesteko arau eta erregelen mende jartzea.

Nazioarteko Zuzenbidearen logika juridiko klasikotik at landutako ituna da. Hain zuzen ere, iturri instituzional, sozial, sindikal, iritzi auzitegi eta kaltetutako komunitateek berek egiaztatu dute giza eskubideak sistematikoki urratzen direla, enpresa transnaziionalen jokabideekiko permisibitate, ilegaltasun eta zigorgabetasun erregimen baten babesean.

Itunaren bidez, enpresa transnaziionalen, estatuen eta finantza erakunde konplizeen kontrako borroketan bildutako esperientzia guztia bildu nahi da. Talde lana da.

Gizarte-mugimenduen eta komunitateen proposamenei lehentasuna eman behar zaie eztabaida juridikoetan, eta bideak zabaldu behar dira Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea «behetik» interpretatzeko eta ikuspegi horretatik hari arauak proposatzeko.

Alderdi teknikoaren eta politikoaren arteko eztabaidak erabateko gaurkotasuna du enpresa transnazi-

onalen kontrolaren auzian. Abokatuen ezagutza espezializatuari atxikitako hizkuntzak ezkutatu egiten du haien esku-hartzearen eta interes hegemonikoen ordezkartzaren izaera politikoa, eta gizarte-erakunde, mugimendu eta komunitateen partaidetza ordezkatzeko edo desitxuratzeko joera du.

Itunaren nondik norakoa ezin marka dezakete gaitasun tekniko, konpetentzia eta prozesu eraginkorretan oinarrituriko errealitateak eta ezagutzaren kontrolak. Hala, multinaziionalen kontrolerako proposamen alternatiboak ezin izan daitezke abokatu bulegoetan lantzeko auzia soilik, ezta nazioarteko gaien adituena ere; funtsean, oinarritik egindako proposamenak dira.

Transnaziionalen kontrolerako itun bat lortzeko, konfrontazioa behar da, eta oso bestelako logika normatibo eratzailerik; *Herrien itunean*, testuingurua, aurrekariak eta justifikazioa ataletan jasota dago logika hori.

Bistakoa da ez dela erraza betebeharrak zehatzak ezartzea eta itun bakarrean bateratzea auzi honekin zerikusia duten arau guztiak: Lan Arloko Zuzenbidea, giza eskubideak, Zuzenbide Humanitarioa, Ingurumen Zuzenbidea, kontsumitzaileen eskubideak, eskubide korporatiboak; enpresa transnaziionalen giza eskubideen arloko nazioarteko arauak errespetatzeko betebeharraren aitortza, baita eskubide horiek urratuz gero dagokien erantzukizun zibilaren nahiz zigor erantzukizunaren aitortza ere; haien zuzendarien erantzukizun zibilaren nahiz zigor erantzukizunaren aitortza; giza eskubideak eta interes publikoa, interes ekonomikoaren gainetik; enpresa transnaziionalen hornitzaile eta azpikontratistek beren produktu eta zerbitzuengatik arazoizko prezioak

ordaintzeko betebeharra; Nazioarteko Gortea onartzea eta lurraldez kanpoko erantzukizuna erregulatzea... Askotariko gaiak dira, noski, eta askotariko logika juridikoei erantzuten diete.

Ez dira zailtasun gaindiezinak, ikuspegi tekniko-juridikotik, baina borondate politikoa eta herrien aldeko indar korrelazioa eskatzen dute. Gaur egungo nazioarteko abagunean, balizko bi bide orrietako bat aukeratu beharra dago: guztiz bestelakoa izango den esparru batean sakontzea, herriek eta komunitateek transnazionalen kontrolerako nahitaezko esparru bat ezartzeko presioa egin dezaten; edo transnazionalen borondatezotasunaren biderei men egitea, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa, *Global Compact* eta Printzipio Gidariak ontzat emanda, besteak beste.

II

Aukeratu dugun izenak esangura berezia du. Dokumentu honek *Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako* eratzeko ideia eta proposamen sorta bat biltzen du. Botere transnazionala erregulatzeko marko bat finkatu nahi du, eta, haren azken xedapenak dioenez, «itunen ituna edo itun markoa da». Haren hainbat xedapenek garapen normatiboa behar dute, erabat finka daitezten; eta, horrekin batera, berehalako eraginkortasuna duten betebeharrak eta eskubiak ere badira.

Garapen normatiboa ez da geldituko estatuen edo nazioarteko erakundeen eskuetan soilik. Organizazio, gizarte-erakunde eta komunitateak ere *Herrien ituna* garatzeko prozesuetako aktore eta subjektu dira, halaber.

Bestalde, Hitzaurreko azken paragrafoak zera dio: «*Herrien nazioarteko ituna* aldarrikatzen dugu, eta NBERen Batzar Nagusiari dei egiten diogu erakunde eta estatu guztien arau komun gisa har dezan, korporazio transnazionalei dagokienerako; era berean, eskatzen dugu itun honetan aitortutako eskubide, erantzukizun eta proposamenak lege, mekanismo eta erakunde nazional, eskualdeko eta nazioarteko bihurtzea, eta

herri eta estatu guztiek horiek inplementa ditzaten sustatzea».

Enpresa transnazionalak mesedetzen dituen zigorgabetasunaren arkitektura alde batera utzi eta gizarteko gehiengoan aldeko giza eskubideen arkitektura bat eraiki beharra dago.

III

Aurkeztu dugun proposamena aurrera eramateko, *Herrien ituna* martxan jartzeko estrategia landu beharko da, hainbat urratsek osatua: enpresa transnazionalen kontrolerako kode bat eratzea, kontuan hartuko dituen *Enpresa transnazionalen eta bestelako merkataritza enpresa batzuen erantzukizunen gaineko Arauak*, Giza Eskubideen Azpibatzerdeak 2003an onartuak eta Nazio Batuen baitan baztertuak; aipatutako instantzien garapen normatiboa, bereziki Korporazio Transnazionalen eta Giza Eskubideen Munduko Gortea; krimen ekonomiko, korporatibo eta ekologikoen erregulazioa; eta, azkenik, estatuei eta ekonomia-finantza erakundeei begirako proposamenak.

IV

Azkenik, *Herrien itunak* alternatibei⁹ buruzko atal bat du, herrien eta naturaren arteko erlazio berriak eraikitzeko markoa eratzeko xedea duena; horien bidez, politika eta ideia ekonomiko berri eta alternatiboak eraikiko dira, herriak eta planeta bera harturik ardatz, eta ez korporazioak.

A. Testuingurua eta aurrekariak

Nazioarteko komunitateak, orain arte, saihestu egin du Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan enpresa transnazionalek (ETN) derrigorrez betetzeko arau juridiko espezifikoak sortzeko betebeharra, nahiz eta enpresa transnazionalek zuzenbide horiek larri urratzen dituzten jarduerak egiten dituzten, erabateko zigorgabetasunaz.

9 Atal hau Botere Korporatiboa Suntsitzen kanpaina globaleko erakundeekiko lanketa eta kontsulta prozesuan dago une honetan; horregatik ez da txertatu argitalpen honetan. 2015eko lehen seihilekoan egongo da eskuragarri, aurreikuspenen arabera.

1970eko hamarkadan, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluaren Sozietate Transnazionalen Batzordeak lehentasunezko zeregin gisa hartu zuen, besteak beste, ETNen jarduerak ikertzea eta haiei giza eskubideak betearazteko nazioarteko jokabide kode bat lantzea. Kode horren gaineko eztabaidak hamar urtez luzatu ziren, baina azkenean ez zen koderik osatu, potentzia handien eta aginte ekonomiko transnazionalaren kontrako jarreraren eraginez bereziki.

1974an, Enpresa Transnazionalen Batzordea eta Zentroa eratu ziren Nazio Batuen baitan. 1976an, *Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Enpresa Multinazionalentzako Gidalerroak* argitaratu ziren, eta 1977an, *Enpresa Multinazionalen Gizarte Politikaren gaineko Printzipioaren Hiruko Adierazpena, Lanaren Nazioarteko Erakundearena (LNE)*. Handik urte batzuetara, 1994an, desegin egin zituzten Nazio Batuen Erakundearen Enpresa Transnazionalen Batzordea eta Zentroa.

1998an, Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Azpibatzerdeak ebazpen bat eman zuen lan talde bat osatzeko, enpresa transnazionalen jarduera eta lan metodoak iker zitzaizkion, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eta garapenerako eskubidearen ikuspegitik. Ebazpen horren paragrafo batean esaten zenez, botere ekonomikoa eta politikoa enpresa transnazional handien eskuetan biltzea da eskubide horiek gauzatzeko eragozpen nagusietakoa.

Lan talde hark enpresa transnazionalentzako arau proiektu bat landu zuen, *Enpresa transnazional eta bestelako merkataritza enpresen erantzukizunaren gaineko arauak*, Azpibatzerdeak 2003an onartua.

Enpresa transnazionalak irmo aurre egin zioten Azpibatzerdearen proiektuari, munduko korporazio handiak biltzen dituzten Nazioarteko Merkataritza Ganberak eta Enplegatzaileen Nazioarteko Erakundeak sinatutako dokumentu baten bidez. Dokumentu horretan ziotenez, Azpibatzerdearen proiektuak urratu egiten zituen enpresa pribatuen eskubideak eta interes zilegia. Era berean, esaten zuten giza eskubideen arloko betebeharrak estatuei dagozkiela, eta ez eragile pribatuei, eta NBEko Giza Eskubideen Batzordeari eskatu zioten bazterrezala Azpibatzerdeak onartutako proiektua.

2005ean, Giza Eskubideen Batzordeak amore eman zion botere ekonomiko transnazionalari, eta entzungor egin zion Azpibatzerdeak onartutako arau proiektuari; ebazpen bat onartu zuen, zeinetan gonbit egiten baitzitzaion Nazio Batuen idazkari nagusiari errelatore berezi bat izenda zezan auzi horretaz jarduteko. Hala, John Ruggie izendatu zuten giza eskubideen eta enpresa transnazional eta bestelako enpresen auziari buruzko Idazkari Nagusiaren Ordezkaritza Berezi.

Ruggiek enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak landu zituen, eta Giza Eskubideen Kontseiluak aho batez onartu zituen, 2011n. 2012ko uztailan, NBEren idazkaritza nagusiak txosten bat aurkeztu zion Giza Eskubideen Kontseiluari, 2012ko iraileko bilkuretan. *Nazio Batuen Sistema osoak enpresen eta giza eskubideen gaineko programa sustatzeko eta enpresen eta giza eskubideen gaineko printzipio gidariak zabaltzeko eta aplikatzeko egindako ekarpena* zen txosten haren izenburua, eta, printzipio gidariei buruz zioenez, «ez da ondorioztatzen inolako betebeharrak juri-dirikorik» horietatik, eta, gainera, berretsi egiten zuen izatera loteslerik ez zutela.

2013an, Ekuador buru zela sinatutako Adierazpenean—Afrikako Taldeak, Arabiar Herrialdeen Taldeak, Pakistanek, Kirgizistanek, Sri Lankak, Boliviak, Kubak, Nikaraguak, Venezuelak eta Peruk ere sinatu zuten—, agerian gelditu ziren Hegoalde globaleko herrialdeek zer-nolako kezka zuten korporazio transnazional handien eragiketarako eragindako giza eskubideen urraketa nabarmenak zirela eta: herrialde batzuetan, kalte larriak egin zituzten tokiko komunitate eta herriek, herri indigenei barne. Adierazpen horretan esaten denez, printzipio gidariak ez dute izango inolako ondorio eraginkorrik baldin eta ez bada eratzten lege tresna lotesleetan oinarrituriko esparru bat korporazio transnazionalen legez kanpoko jarduerak erregulatzeko eta zehatzeko.

B. Justifikazioa

Azken berrogei urtetan, «zigorgabetasunaren arkitektura» dei litekeena eraiki dute enpresa transnazionalek eta haiek babesten dituzten estatuek—enpresen jatorrizkoek nahiz estatu hartzaileek—: araudi ugari eta lotesle bat, enpresa transnazionaleri izugarritzko botere ekonomiko, juridiko eta politikoa eman diona, merkataritza

eta inbertsio itun eta akordioen bidez, Merkataritzaren Mundu Erakundearen, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtzaren moduko nazioarteko erakundeen ebazpenen bidez eta inbertsiogile-estatu arteko gatazkak ebazteko mekanismoen bidez.

Arkitektura horren aurrez aurre, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea dugu, milioika pertsonak eta milaka erakundek mundu osoan egindako borrokari esker eratua. Eta nazioarteko arauen ikuspegi horretan kokatzen da, hain zuzen, *Herrien nazioarteko ituna*. Nazioarteko Zuzenbidea “behetik” eraikitzea eta aztertzea, gizarte-mugimenduetatik eta gizon-emakumeen erresistentzietatik, eta ez estatuetan oinarrituriko elite ekonomiko eta politikoetatik: horixe da Itunaren lan metodologia. Izan ere, nazioarteko arau asko sortzeko bidea eman du tokiko mugimenduen, mugimendu nazionalen eta globalen presioak eta mobilizazioak, boterearen zentralitatetik harago.

Herrien ituna proposamen alternatibo erradikala da, eta helburu hauek ditu; alde batetik, kontrolerako mekanismoak proposatzea enpresa transnazionalak ez ditzaten giza eskubideak urratu, eta, bestetik, komunitateen eta gizarte-mugimenduen artean trukea bideratzeko eta aliantzak egiteko esparru bat eskaintzea, espazio publikoa aldarrikatzeko, botere korporatiboek betetzen baitute orain.

Proiektu normatiboa da, eta botere korporatiboaren aurreko erresistentzien eta alternatiben adibide zehatz eta bizietatik abiatuta taxutzen ditu esanahi nagusiak. Ildo horretatik, beren jarduna alternatiba normatibo zehatzetara mugatu izan duten nazioarteko beste ekimen batzuen oso bestelakoa da. Eraikitzen ari den proposamen bat da, eta haren xedeetako bat da indarra ematea eraldaketaren alde borrokan ari diren eta, aldi berean, beren espazio zilegia aldarrikatzen diharduten eragile globalei.

Prozesu hori sendotzea funtsezkoa da korporazio handien kontrolerako mekanismo juridikoak ezartzearekin batera Itunaren bigarren helburua sendotzeko: gizarte-mugimenduei laguntzea ondasun komunak aldarrikatzen, komunitateek eta herritarrek kontrolatu beharko lituzketen sektoreetan konpainia transnazionalak nagusitzeari uko egiten. Itunaren prozesuak konpainia transnazionalentzako arau lotesleak aldarrikatzen ditu, baita arauak onartzea ere –gobernuek

onartzea–, sektore pribatua giza duintasunarentzat eta pertsonen eta planetaren biziraupenarentzat funtsezkoak diren arloetatik kanpo uzteko.

Hortaz, tresna legal klasikoez birjabetzeak eta horiek berriro lantzeak erronka jotzen diote ordena juridiko-politikoko paradigma gailenari. Hala, herri indigenen kontsulta eskubidea, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean arautua, berrezaugarritu eta berre-raiki egiten da, kontsulta iraunkorreko biltzar bidezko prozesuetan. Herriak nazioarteko legearen subjektu eratzaille gisa ezaugarritzen dira, eskubide berriak proposa eta aldarrika ditzakete.

Oraingo eta etorkizuneko *Herrien nazioarteko ituna* izango da hau, oraingo eta etorkizuneko belaunaldien erantzukizunean eta etikan eta Lurra eta Lurreko herriak babesteko betebeharrean oinarritua.

C. Hitzaurrea

Herriek eta nazioek:

Kontuan harturik Nazio Batuek Batzar Nagusiaren hainbat ebazpenen bidez (hala nola 32/130, 43/113, 43/114 eta 43/125 ebazpenak) eta Teherango (1969) eta Vienako (1993) Giza Eskubideen gaineko Adierazpenaren bidez azpimarratu dutela giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak banaezinak eta elkarren mendekoak direla, eta, hortaz, ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumen eskubideak aplikatu, sustatu eta babesteari adinako arreta jarri eta premiazkotasun bera aitortu behar zaiola eskubide zibil eta politikoak aplikatu, sustatu eta babesteari.

Esanik enpresa transnazionalak beren hedapen globalan giza eskubideak sistematikoki urratzen dituztela.

Azpimarraturik herriek autoritate moral eta zilegia dutela gauzen egoera honi aurre egiteko eta giza eskubideen lehentasuna emateko arau eta erregela berriak sortzeko, baita politika, ekonomia, gizarte, ingurumen eta kultura jardueraren arlo guztietan estatuek arau eta erregela horiek aplikatu ditzaten eskatzeko ere.

Esanik enpresa multinazionalak, estatuek eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeek giza eskubideek eraginkortasunez errespetatu ditzaten beharrezkoa dela herrien errespetua eta 1976ko Herrien Eskubideen Adierazpen Unibertsala aintzat hartzea.

Esanik herri guztiek dutela autodeterminazio eskubidea eta beren norabide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala askatasunez erabakitze eskubidea, baita garapen autonomo, harmoniko, iraungarri, autozentratu eta eskualdeen garapen inklusiborako eskubidea ere, bizimodu onerakoa, zerbitzu publikoetarako eta ondasun komunitararako bezalaxe.

Berretsirik estatuen, herrien eta gizon-emakumeen arteko berdintasun subiranoa, aberastasunaren banaketa ekitatiboa eta naturarekiko errespetua direla herrien eta pertsonen arteko nazioarteko solidaritatearen esparruan nazioarteko proposamen politiko, ekonomiko eta juridiko berri bat eraikitze printzipioak.

Berriro esanik nazioarteko proposamen demokratiko eta berdintasunezko berri bat ezinbestean lotuta dagoela oinarritzko giza eskubideekin. Nazioarteko sistema juridiko berria eraikitze oinarri nagusitzat hartu behar dira Nazio Batuen Gutuna, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Giza Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenak eta horien protokoloak, giza eskubideei buruzko nazioarteko konbentzio orokor nahiz partikularrekin, nazioarteko ohiturarekin eta zuzenbidearen printzipio orokorrarekin batera.

Aldarrikaturik ezinbestekoa dela giza eskubideen gorputz normatiboak osatzen dituzten testuak birfundatzea, eta beharrezkoa da prozesu eratzailerik abian jartzea, gizonen eta emakumeen eta gizarte-mugimenduen aldarrikapenak biltzeko eta eskubide berriak gidatzeko, gutxienez, honako arlo hauetan: bakea, solidaritatea, bizimodu ona, natura, elikadura burujabetza, demokrazia eta estatua, nazioarteko migrazioak, emakumeen eta jatorrizko herrien sexu eta ugalketa osasuna eta gutxiengoaren eskubideak.

Aitorturik agerikoak eta jarraituak direla enpresa transnacionalen jardueren ondoriozko urraketa eta zigorgabetasunak –gizarte-mugimenduek, GKE-ek eta behatokiak, komunitate kaltetuetako kide eta ordezkarien lekukotasunek nahiz Nazio Batuen errelatoreek dokumentatuak–, hainbat iritzi auzitegitan epaituak –besteak beste Herrien Auzitegi Iraunkorrean– eta auzitegi nazional eta nazioarteko gorteetan zigortuak.

Egiaztaturik enpresa multinazionalen zigorgabetasun gero eta handiagoa eta sistematikoa, zeinak baitakartza giza eskubideen aldele, sindikalista, herri

indigena, afrikarren ondorengo, nekazari eta haurren kontrako mehatxuak eta erasoak, beste talde batzuen kontrako gainera, enpresa horiek sekulako irabaziak pilatzearekin batera.

Aitorturik azken urteetan enpresa transnacionalek eta haiek babesten dituzten estatuek –enpresen jatorrizkoek nahiz haien hartzaileek–*lex mercatoria* berri bat sendotu dutela, alderdi anitzen arteko, eskualdeko eta aldebiko inbertsio eta merkataritza askeko kontratu, hitzarmen, itun eta arauen bidez, Merkataritzaren Mundu Erakundearen, Nazioarteko Diru Funtzaren eta Munduko Bankuaren xedapen, doikuntza politika eta baldintzapeko maileguen bidez, eta inbertsiogile-estatu arteko gatazkak ebazteko mekanismoen bidez, eta horrek izugarritzko botere politiko, ekonomiko, kultural eta juridikoa eman diela korporazio handiei.

Sumindurik Zuzenbide Korporatibo Globalaren –zeinak gidatzen baititu enpresa transnacionalen eskubideak modu aginduzko eta hertsagarrian– eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arteko asimetria normatiboa dela eta.

Egiaztaturik Gizarte Erantzukizun Korporatiboa eta enpresa transnacionalen kontrolerako *ad hoc* mekanismoak –hala nola, Enpresa Multinazionaleri eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Gizarte Politikaren gaineko Hiruko Adierazpena, Ekonomia Garapen eta Lankidetzarako Antolakundearen Enpresa Multinazionalentzako Lerro Gidariak, Munduko Ituna eta Nazio Batuen Printzipio Gidariak– zuzenbide bigunaren adierazpen paradigmaticoak direla eta horiek osatzen dituzten jokabide kode eta akordio borondatezko, aldebakar eta eskagarritasun juridikorik gabeak nazioarteko erakundearen atrofia, kolonizazioa eta mendekotasun korporatiboa eragiten ari direla.

Aitorturik estatuak ez dituela modu eraginkorrean erregulatzen lurralde betebeharrak eta lurraldeaz kanpoko betebeharrak, nazio, eskualde eta nazioarteko esparruetan korporazio transnacionalek duten erantzukizunari dagokionez.

Aitorturik estatu matrizeek beren enpresa transnacionalen interesak babesten dituztela, giza eskubideen gainetik, eta estatu hartzaileek ez dituztela herrien interesak bermatzen eta enpresa transnacionalak me-

sedetzen dituztela, haien aldeko legeen bidez edo inbertsio eta merkataritza askeko itunak berretsiz.

Abiapuntu harturik giza eskubideei buruzko nazioarteko arau eta legeen corpusa, eta nazioarteko aditu, erresistentzia gauzatzen diharduten komunitate, biktima eta gizarte-mugimenduen iritzian oinarriturik, *Herrien nazioarteko itunak* aldarrikatzen du giza eskubideek dutela lehentasuna, paradigma ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen eraikuntzaren gainetik.

Kezka larria adieraziz estatuen eta enpresa transnazionalen arteko konplizitatea dela-eta eta estatuak korporazio handien abusuen mende daudela-eta, horrek eragotzi egiten baitu estatuak herrien eskubideak eta biktimen justizia eta ordain eskubideak bermatzea.

Egiaztaturik premiazkoa dela talde ekintza erabakigarriak abian jartzea enpresa transnazionalen boterea deuseztatzeko eta zigorgabetasun korporatiboa bertan behera uzteko.

Herrien nazioarteko ituna aldarrikatzen dugu, eta NBE-ren Batzar Nagusiari dei egiten diogu erakunde eta estatu guztien arau komun gisa har dezatan, korporazio transnazionaleri dagokienerako; era berean, eskatzen dugu itun honetan aitortutako eskubide, erantzukizun eta proposamenak lege, mekanismo eta erakunde nazional, eskualdeko eta nazioarteko bihurtzea, eta herri eta estatu guztiek horiek inplementa ditzaten sustatzea.

D. Alderdi juridikoa

I. Itunaren esparrua

1.1. Enpresa transnazionalak

Enpresa transnazionalak (ETN) herrialde batean baino gehiagotan diharduten entitate edo entitate multzo ekonomikoak dira, edozein molde juridiko hartzen dutela ere, jatorrizko herrialdean nahiz jarduera gauzatzen duten herrialdean. Enpresa transnazional orok du sozietate matrize bat, sozietatea kokatuta dagoen herrialdeko legediarekin bat sortua,

eta sozietate matrize hori beste herrialde batzuetan kokatzen da, atzerriko inbertsio zuzenen bidez edo bestelako ekonomia-finantza jarduera batzuen bidez, enpresa lokalik sortu gabe edo sozietate lokal gisa eratutako filialen bidez, inbertsioaren jomuga izango den herrialdeko legediarekin bat etorrira.

Enpresa transnazionalak, pertsona juridiko guztiak bezalaxe, behartuta daude arau juridikoak errespetatzera, eta, hala egiten ez badute, zigorra jaso dezakete, nazionala nahiz nazioartekoa, indarrean dauden nazioarteko tresnen azterketaren bidez, eta azterketa horretan sartzen dira giza eskubideen urraketa ere. Pertsona pribatuak –pertsona juridikoak barne– giza eskubideen arloan dituzten betebeharrak eta horiek urratuz gero dagokien erantzukizuna aitortuta dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 29. artikuluan, eta bide horretan sakontzen dute nazioarteko doktrinak eta hitzarmen askok, bereziki ingurumena babesteari dagokionez.

1.2. Nazioarteko ekonomia-finantza erakundeak

Inbertsio eta merkataritza askeko hitzarmen, itun eta arauak, nazioarteko ekonomia-finantza erakundeek onartutako xedapen, doikuntza politika eta baldintzapeko maileguez enpresa transnazionalen boterea sendotzen dute.

Nazioarteko pertsona juridiko diren heinean, erakunde horiek erantzukizun juridikoa dute, erabakiak hartzen dituzten organoetako kideek bezalaxe –izan pertsonabakarrak nahiz kide anitzekoak–, –egintzaz edo ez-egitez– gauzatzen edo laguntzen dituzten eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoen urraketen gainean.

Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankua Nazio Batuen sistemako organismo espezializatuak dira, eta, hala diren heinean, Nazio Batuen Gutunari egokitu behar zaizkio haien erabakiak. Nolanahi ere, Merkataritzaren Mundu Erakundeak (MME) eta eskualde bankuek bezalaxe dihardute, kapital transnazional handiaren zerbitzura¹⁰.

10 Nazioarteko Diru Funtzaren eta Munduko Bankuaren funtzionamendua eta erabakiak eta horiek politika ekonomikoari, doikuntza politikei eta kanpo zorrari buruz ezartzen dituzten orientazioak giza eskubideen nazioarteko sistemaren kontra garatzen dira; zerbitzu publikoak pribatizatzeak, gastu soziala murrizteak, zerbitzu horien tarifak igotzeak, lan erreformek eta abarrek aurrez aurre talka egiten dute, besteak beste, eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoekin.

MMEk, ondasun eta zerbitzuen merkataritza globala arautzeaz gainera, arauak ezartzen ditu jabetza intelektualari buruz, baita murrizketak ere araudi nazionalai, politika publikoaren baitako beste esparru askotan; alderdi horretatik, eredu neobileral desregulatzaileren mekanismo instituzionala da, eta estatu bakoitzaren baitako botere publikoen funtzioak, kanpo negoziatzaioarako ahalmena eta herrien autodeterminazio eskubidea urratzen ditu.

1.3. Estatuak

Estatuek men egin behar diete, garatu egin behar dituzte, eta aplikatu eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak gaineko nazioarteko itun, akordio eta arauak, eta haien mende jarri behar dituzte merkataritza, inbertsio, finantza, zerga eta segurtasunari dagozkien nazioarteko arauak.

Eragile pribatuek giza eskubideen kontra egindako urraketen batzordeak ez du Estatua gabetzen eskubide horiek bermatu, babestu eta sustatzeko duen betebeharretik, ezta bitarteko judizial egokien bidez urraketak horiek kaltetutako komunitateentzako erremedio eraginkor eta ordain jasotzeko moldeetarako sarbidea emateko betebeharretik ere.

2. Printzipio orokorrak

Lehen atala. Giza eskubideak, estatuak eta enpresa transnazionalak

- 2.1. Gizaki guztiak, nonahikoak direla ere, libre eta berdin jaiotzen dira, duintasunez, eta gizaki diren heinean atxikita dituzten giza eskubideen eta askatasunen jabe dira, banako gisa nahiz kolektiboki, inolako diskriminaziorik gabe.
- 2.2. Herritar guztiek, eta, bereziki talderik ahulenek, modu erabakigarrian parte hartu behar dute beren bizitzari eta inguruneari dagozkien erabakietan.
- 2.3. Estatu guztiak daude behartuta giza eskubideak sustatu, errespetatu, babestu eta bermatzera –hau da, eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak–, beren lurraldean nahiz hartatik kanpo.

- 2.4. Giza eskubideak eta haiek aplikatzeko arauak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendekoak dira.
- 2.5. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea honako ardatz hauetan oinarritzen da: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena eta Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna eta horien Aukerazko Protokoloak –Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna eratzen dutenak–, baita nazioartean onartutako adierazpen, irizpide, ohartarazpen eta printzipioak ere.
- 2.6. Nazioarteko Zuzenbidearen iturri sistema Justiziako Nazioarteko Gortearen Estatutuaren 38. artikuluan jasota dago, eta honako hauek eratzen dute: nazioarteko konbentzioak –orokorrak nahiz partikularrak–, nazioarteko ohitura, munduko sistema juridikoek aitortutako zuzenbidearen printzipio orokorrak, arau juridikoen iturri nagusiak eta sortzaileak diren heinean, eta erabaki juridikoak eta konpetentzia goreneko legegarien doktrinak, indarrean dauden arauen iturri lagungarri eta interpretatzaioarako iturri gisa. Nazioarteko Zuzenbidean, nazioarteko itunen balio juridiko bera du ohiturak, eta Nazioarteko Zuzenbide ohiturazkoa dago indarrean eta derrigorrezkoa da. Giza Eskubideen Nazioarteko gutuna horren osagarri da, eta nazioarteko komunitatearen funtsezko interesak babesten eta jasotzen dituen aginduzko arau bete-betea da –edo *ius cogens araua*–. Eta Itunen Zuzenbideari buruzko Viennako Konbentzioaren 53. artikulua araberak, aginduzko arau bat ezin indargabetu daiteke eta ez dago haren kontrako akordiorik hartzerik aginduzko ez den beste arau baten bidez.
- 2.7. Enpresa transnazionalek eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeek herrien eta estatuen subiranotasuna errespetatu behar dituzte, garapenerako eskubidearen, bizimodu onaren eta ondasun komunaren errespetua aintzat hartuta.
- 2.8. Enpresa transnazionalek, nazioarteko erakundeek eta estatuak errespetua zor eta men egin behar diete Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea eratzen duten arau, gomendio eta adierazpenen xedapenei.

Bigarren atala. Giza eskubideak eta merkataritza eta inbertsio arauak

2.9. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea –Lanaren Nazioarteko Zuzenbidea eta Ingurumenaren Nazioarteko Zuzenbidea barne– hierarkian gorago dago merkataritza eta inbertsio arau nazional eta nazioartekoak baino, aginduzko izaera duten eta *erga omnes* obligazioak diren heinean, hau da, nazioarteko komunitate osoarenak eta nazioarteko komunitate osoarentzakoak.

2.10. Inbertsio eta merkataritza askeko itunek eta akordioek enpresa transnazionalen pribilegioak eta irabaziak lehenesten dituzte, herrien eskubide eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen gainetik. Hala ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, Eskubide Zibil eta Politikoen eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak eta giza eskubideen eta ingurumenaren gaineko nazioarteko beste itun eta konbentzio batzuek aginduzko arauen eta Nazioarteko Zuzenbide Orokorren izaera hartzen dute. Hortaz, inbertsio eta merkataritza askeko itun eta akordioak baliogabetzeko hierarkian goragoko arau baten gailentasuna argudiatu beharra dago.

2.11. Inbertsio eta merkataritza askeko arauak loturiko printzipio juridikoek –tratu nazionala, nazio mesedetuagoa, tratu onuragarriagoa, tratu justu eta ekitatiboa, inbertsio kontzeptua, zeharkako desjabetzearen kontzeptua, jarduteko baldintzak eskatzera mugatzea, itunaren atzera eraginezko babes, dibisen erabilgarritasun askea, aterki klausula, egonkortze klausulak eta salaketaz gero biziraupeneko klausula– men egin behar diete estatu hartzailearen arau nazionalak eta giza eskubideen nazioarteko arauak. Inola ere ezin onar daiteke inbertsiogile-estatu arteko gatazkak arbitraje organoen erabakien mende uztea, horrek kaltetu egingo lukeelako Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak aitortutako estatuen

subiranotasunaren, pertsonen eta herrien eskubideen babes.

2.12. Nazioarteko ohitura eta printzipio unibertsalak –hala nola, aldeek hitzartutakoa bete beharraren (*pacta sunt servanda*), ekitatearen, fede onaren, eskubide abusuaren, aberaste bidegabearen, egoeren aldaketa nabarmenak aldean obligazioak aldaraztearen (*rebus sic stantibus*), ezinbestearen eta premia egoeraren printzipioak– modu bateratu, osagarri eta gizarteko gehien- goen eskubideen mesederakoan interpretatu behar dira; inbertsioen segurtasun juridikoa ez da interpretatu behar *pacta sunt servanda* printzipioaren baliokide gisa, baizik eta goian aipatutako printzipioen osotasuna errespetatzeko eskakizun gisa. Biktimen aldeko lehentasunaren nazioarteko printzipioa gailendu behar zaie inbertsio eta merkataritza arauak¹¹.

2.13. Inbertsio eta merkataritza itunetan eta akordioetan txertatutako gizarte, lan eta ingurumen arloko klausulak xedapen deklaratiiboak dira, aginduzkoak baino gehiago; merkataritza eta inbertsioen babesaren mendeko klausulak dira. Aldatu egin behar da horien balio normatiboa, klausulak hierarkian gorago egon daitezkeen inbertsio eta merkataritza arauak loturiko printzipioak baino, eta ezabatu egin behar dira giza eskubideak oro har harturik horien erabaketeko errespetuarekin bateragarri ez diren inbertsio eta merkataritza arauak.

Hirugarren atala. Estatuak eta nazioarteko organismoak: marko normatibo orokorra

2.14. Estatuak eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeak errespetatu, babestu, sustatu eta bermatu egin behar dute Nazioarteko Zuzenbidea osotasunean aplikatzen dela, eta alde batera utzi giza eskubideen itunetan xedatutako betebeharrak saihesteko saiakerak.

11 Indarrean dagoen eredu normatiboaren arabera, inbertsiogileei eta enpresa nazionalak emandako abantaila oro atzerriko inbertsiogileei ere eman behar zaie: inbertsiogile eta enpresa nazionalak ezin jaso dezakete estatuaren inolako laguntzarik, tratu nazionalaren printzipioa urratuko bailuke horrek. Hala ere, printzipio hori ez zaie aplikatzen pertsona migratzaile eta errefuxiatuei, migrazio lege eta babes lege izugarri murriztaileak ezartzen baitzaizkie horiei. Pertsona guztiak babestera jo beharko luke proposamenak, edozein tokitan bizi direla ere, enpresa transnazionalen gainetik.

- 2.15. Estatuari egotzi behar zaie estatuaren jarraibide, gidaritza edo kontrolari jarraituz diharduten estatutik kanpoko eragileen egintzen eta ez-egiteen erantzukizuna.
- 2.16. Estatuak bermatu eta babestu egin behar dituzte eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak urratzen dituzten ETNen jarduera eta eragiketek kaltetutako komunitateak eta pertsonak, eta bermatu egin behar diete kaltetu horiei justizia eta ordainerako eskubidea.
- 2.17. Estatuak dira, askotan, herrien eta pertsonen eskubideak ez bermatzearen erantzule, beren jardueren bidez enpresa transnazionalak mesedetzen dituzten heinean. Estatu hartzailei salaketa jar dakieke –ezinbesteko partaidetzagatik– korporazio handiek giza eskubideak urratuz gero, haien mesederako legeak egiten dituztelako eta enpresa transnazionalen jarduerak errazteko inbertsio edo merkataritza askeko itunak berresten dituztelako, edo haien konplize direlako, urraketak ez eragozteagatik. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzeko betebeharrak –Lanaren Nazioarteko Zuzenbidea eta Ingurumenaren Nazioarteko Zuzenbidea barne– esportazio zona franko, zona ekonomiko berezi eta lakei ere badagozkie.
- 2.18. Enpresa transnazionalen egoitza matrize diren estatuari jazarri egin ahal izango zaie beren erantzukizun kriminal eta giza eskubideen gaineko erantzukizunagatik, baldin eta bultzatuko balituzkete edo bultzatzen saiatuko balira herritarren eta herrien eskubideak babestuko ez dituzten edo horiek urratuko dituzten inbertsio eta merkataritza itunak.
- 2.19. Enpresa transnazionalen egoitza nagusiaren kokaleku diren estatuaren zuzeneko nahiz zeharkako erlazioak direla eta, estatu horiek behartuta daude, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin bat etorrira –Lanaren Nazioarteko Zuzenbidea eta Ingurumenaren Nazioarteko Zuzenbidea barne–, beren jurisdikzioaren baitan bermatzera jarduera politiko eta ekonomikoek ez dituztela urratzen eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta ingurume-nekoak eta ez dutela enpresek beste herrialde batzuetan giza eskubideak urratzeko bidea ematen.
- 2.20. Estatuak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen esparruan dituzten lurraldez kanpoko erantzukizunari buruzko Maastrichteko printzipioekin bat etorrira, estatuak behartuta daude eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak errespetatu, babestu eta betetzera, beren lurraldean nahiz handik kanpo, eta eskubide horiek urratzeak estatuaren nazioarteko erantzukizuna kolokan jartzea ekar dezake. Lurraldez kanpoko betebeharrak horiek aitortu ezean, giza eskubideek ez dute beteko globalizazioa erregulatzeko eta giza eskubideen babes unibertsala bermatzeko oinarri juridiko gisa duten zeregina.
- 2.21. Estatuak enpresei nazioartekotzen laguntzeko dituzten mekanismoak –esportazioetarako kreditu agentziak eta bankuak, merkataritza sustapena, merkataritza diplomazia, finantza tresnak, lankidetzaren politikako tresnak, zuzeneko babes logistikoa eta barne hedapena– giza eskubideen babesaren nazioarteko sistemaren mende jarri behar dira. Estatuak enpresak nazioartekotzeko programen esparruan giza eskubideak errespetatu daitezkeen bermatzeko irizpideak ezarri behar dituzte, nazioarteko lankidetzaren eta giza eskubideen gaineko ardura duten organoen bidez.
- 2.22. Baztertu egin behar dira ondasun eta zerbitzu unibertsal eta erabilera komuneko jakinen zuzeneko pribatizazioak, hala nola, elikadurarena, osasunarena, hezkuntzarena, kulturarena, urarena, naturarena, eta abar. Hala dagokionean, estatuak behartuta egongo dira pribatizazioek giza eskubideetan dituzten eraginak ebaluatzen, partaidetza bidez eta modu sozialki kontrolatua, eta baldintza jakin batzuk eskatzera, esaterako eskuragarritasuna, irisgarritasuna –fisikoa, ekonomikoa eta informaziorakoa– eta kalitatea, pribatizazioak abian jartzeko garaian estatuak errespetatu eta bermatu beharrekoak.
- 2.23. Estatuak debekatu egin behar dituzte giza eskubideen kontrako sarrera eta inbertsioen ezarpena –arma industriakoak, energia nuklearre-

koak, adibidez—, eta mugatu egin behar dituzte legezkoak izanik ere erantzukizuna ekar lezaketen jarduerak, herrien garapenerako eta komunitateen bizibide onerako kaltegarriak izan daitezkeela-eta; era berean, partaidetzarako bide berriak ezarri behar dituzte garapenaren, merkataritzaren eta inbertsioen kontzeptuei buruzko parametro berriak ezartzeko.

2.24. Estatuak ez dute jo behar eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak betetzeari buruzko eraginkortasun progresiboa ezabatu, eten edo murriztera krisi ekonomiko edo/eta finantza krisiak kudeatzeko; hala behar izanez gero, progresibitatea —versus regresibitatea— mugatzeko unean uneko, aldi baterako, proportziozko eta diskriminaziorik gabeko neurriak hartu behar lituzkete, balizko proposamen alternatibo guztiak agortuta. Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideen funtsezko edukia beti errespetatu behar da, eta ezin erabil daitezke zerga diziplinaren eta politika publikoen argudio orokorrak regresibitatea azaltzeko argudio gisa.

2.25. Estatuak eta nazioarteko erakundeak laguntza humanitarioko politikak bizitzak salbatzera, sufrimendua arintzera eta giza duintasunari eustera bideratuak behar dute izan; estatuak, erakunde horien, enpresen edo horien guztien interes ekonomikoak inola ere ezin dituzte zedarritu edo baldintzatu laguntza humanitarioko politikak.

2.26. Estatuak, adierazpen askatasuna eta informazio objektiboa eta inpartziala jasotzeko eskubidea bermatzeko, debekatu egin behar dute hedabideetan monopolioak eratzea eta enpresa arteko sozietate edo akordioak eta gisa horretakoak eratzea komunikazio enpresen eta industria, merkataritza eta finantza jardueren beste sektore batzuen artean. Estatuak zerbitzu emaileen benetako pluraltasuna bermatu behar du¹².

2.27. Deslokalizazioak —zereginak transferitzea atzerrian kokatutako sozietate afiliatuei edo, zeharka, bitarteko ondasunak eta zerbitzuak atzerriko hornitzaileei erosiz, haiekiko mendekotasun erlaziorik ez izateko moduan— lanaren nazioarteko arau jakin batzuk onartzea eskatzen du, deslokalizazioaren bidez irabazi handiagoak lortu nahiaren ondoriozko kaleratzeak debekatzeko; irabaziak ematen dituzten languneak ixtea eta deslokalizatzea debekatzeko; langileen ordezkariari berregituraketa planak bertan behera utz dezaten ahalmena emateko, enpresaren ekonomia-finantza egoeraren gaineko informazioa eskuratu artean; langileei beto eskubidea emateko, enplegua suntsitzeko eta deslokalizaziorako neurriari aurre egin ahal izan diezaieten; zergak ezartzeko enpresa deslokalizatuetatik berrinportatutako produktuei; deslokalizatzen diren enpresak diru-laguntza publikoak itzultzera behartzeko eta ETNei bere filial, hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileekiko erantzukizun solidarioa ezartzeko¹³.

12 Itxurazko dibertsitatea gorabehera, oligopolioen eta are monopolioen eskuetan oso kontzentratuta daude hedabideen jabetza eta kontrola. Hona hemen zertan diren egoera horiek: oligopolioak esan nahi du merkatu jakin bat saltzaile edo zerbitzu emaileen kopuru txiki baten esku dagoela. Merkatu horretan parte-hartzaile gutxi daudenez, akordioak egin ditzakete beren artean, elkarren onurarako eta lehia saihesteko, nahiz eta horrek kalte egin diezaiokeen kontsumitzaile edo erabiltzaileei eskaintutako zerbitzuari. Bestalde, monopolioak adierazten du merkaturan botere handia duen ekoizle bat dagoela eta ekoizle horrek duela industria jakin batean produktu, ondasun, baliabide edo zerbitzu jakin eta berezi bat.

13 Lan arloan, enpresa batasuna aldatzeak kalte egiten die langileen eskubideei. Erakundearen kanporatzeak eta deszentralizazioak atxikita ekarri ohi ditu soldatapekoen babesa aldatzeko arauak. Lege erreferentzia nazionalak ez du gaitasunik globalizazioaren markoan beren jarduerak «lurraldetik ateratzen» eta erregulazio esparru askoren artean zatitzen duten korporazioen jarduerak ekonomiko guztia kontrolatzeko. Testuinguru horretan, Akordio Marko Globalek hobetu egiten dute jokabide kodeen bilakaera, aldebakartasunaren ordez partaidetza eta negoziazio kolektiboko fenomenoak ezarri. Jokabide kode aldebakar eta borondatezkoen ordez, solaskidetzak eta sindikatuen partaidetza mekanismoak ezartzen dira. Alde sinatzaileen arteko kontratu indarra dute, baina ez ondorio normatiborik. Enpresak berak du haiek aplikatzeko ardura. Hala, Akordio Marko Globalen eskagarritasunean sakontzea proposatzen da, eta haiek huts eginez gero eskatu ahal izatea haiek bete daitezkeen, delako enpresa transnazionalaren jarduerak hartzen duen estatuko aginte judizialaren aurrean, edo, bestela, aldean arteko akordioa sinatu zen estatu matrizearen aginte judizialaren aurrean.

- 2.28. Debekatu egin behar dira *commodityen* merkaturuan (lehengaiak eta nekazaritzako produktuak) esku-hartzeko eta espekulatzeko xedea duten banku eta finantza sozietateen jarduerak.
- 2.29. Debekatu egin behar dira paradisu fiskalak eta zor subiranoaren gaineko espekulazioa; gainera, –Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera–zilegi deklaratzeko ez den zor publikoa ezereztu egingo da, eta, gainerako zorrari dagokionez, oinarritzko kitzatze bat aplikatuko zaie neurritz gaindiko zorra duten herrialdeei.
- 2.30. Debekatu egin behar dira «ate birakariak» –goi kargudunei eta politikariei aukera ematen dieten sektore publikoaren eta pribatuaren artean sartu-irtenean inolako eragozpenik gabe ibiltzeko–, politika publikoen erabakitze prozesua kooptatzea –erregulazio kooperazioa, legediaren baterako idazketa, arau tipoak edo legeen aurreproiektuak–, eroskeria eta ustelkeriazko bestelako jarduerak.
- 2.31. Gobernuak eta legebiltzarrek kontsulta egingo diete –online eta audientzia publikoetan– enpresei, presio taldeei, gizarte-mugimenduei, sindikatuak, GKE-ek, herri autoktonoak, besteak beste, haien interesak loturiko erabakiak hartu aurretik.
- 2.32. Debekatu egin behar da naturako bizi moldeak patentatzeko saiakera oro, eta organismo genetikoki eraldatuak; era berean, osasunerako oinarritzko aurkikuntzen gaineko jabetza publikoari lehentasuna emateko eskubide bat sortu behar da.
- 2.33. Arautu egin behar da finantza merkatuetan diharduten banku, enpresa, inbertsiogile talde, agentzia, aholkularitza etxe, komisiolari eta bestelako eragileen sare konplexua. Arauak onartuko dira, gutxienez, finantza jardueren gardentasunari buruz; finantza zerbitzuen eta kapitalen kontrolari buruz; inbertsio funtsen kontrolari (*hedge funds*), zerga iruzurrari eta zerga saihesteari buruz, kalifikazio agentziei buruz, zuzendaritzako goi kargudunen ordainsariei eta banku-sekretuari buruz; kapitalaren lege kanpoko fluxuak zigortzei buruz. Arauak lan-
duko dira kapitalak mugitze tasei buruz eta enpresen errentaren, ondarearen eta onuren gaineko zerga progresiboak ezartzei buruz.
- 2.34. Trantsizio prozesu bat abian jarri behar da munduko merkataritza arautzeko eta gatazkak ebazteko mekanismo berri bat finkatzeko, MMEren eta haren mekanismoen orde. Berehalakoan indargabetu behar dira Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra, nekazaritza eta abeltzaintza ustiatu txikiak eta nekazariak deuseztatzea dakarten akordioak, Merkataritzaren Mundu Erakundearen merkataritzarekin loturiko jabetza intelektualari buruz egindako akordioa (TRIPS, ingelesezko siglak) eta Landare Lorpenak Babesteko Nazioarteko Hitzarmena. Azkenek, bereziki, mesede egiten diete enpresa transnazionalak eta kalte, besteak beste, osasun eskubideari, farmaziako produktuen eskuragarritasunari eta herri indigenen eskubide eta eza-gutza tradizionalak.

3. Enpresa transnazionalak begirako premisa eta proposamen juridikoak

- 3.1. Arau nazionalak eta nazioartekoak nahitaez bete beharrekoak dira pertsona natural eta juridikoentzat.
- 3.2. Enpresa transnazionalak pertsona juridikoak dira, eta, hala diren heinean, Zuzenbidearen subjektu eta objektu ere badira; hortaz, nahitaez bete behar dute Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea – Lanaren Nazioarteko Zuzenbidea eta Ingurumenaren Nazioarteko Zuzenbidea barne–.
- 3.3. Enpresa transnazionalen zuzendariak pertsona fisikoak dira, eta haien erantzukizuna ere nahitaez betetze-koak dira arau juridikoak. Arlo zibilean eta zigor arloan, bereziki, legedi nazionalak joera modernoak aitortu egiten dute pertsona juridikoen erantzukizuna, eta inputazio bikoitza onartzen da; alegia, onartzen da inputagarri izatea batetik pertsona juridikoa eta bestetik egotzitako erabakia hartu zuten pertsona fisikoak –entitatearen zuzendariak–. Kontuan hartu behar dira, halaber, konplizitatea, laguntzea, akuilatzea, eragitea eta estaltzea, haien erantzukizuna zehazteko.

3.4. Enpresa transnasionalek erantzukizun solidarioa dute beren filialekiko (*de jure* edo *de facto* filialekiko), baita hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileen katearekiko ere, ETNekin partekatzen baitute horiek guztiek eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak urratzeagatik erantzukizuna, jardueraren ekonomikoen bidez elkarri lotuta dauden heinean. Korporazio handiek beren filial, hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileekin duten erantzukizun solidarioaren auzi hori funtsezkoa da, kontuan hartuta ETNen ohiko jokabidea zein den, alegia, kostuak, arriskuak eta horiei atxikitako erantzukizunak –filial, hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileen gain gelditzen direnak, ia eskusiboki– kanpora ateratzea, mozkin handiak lortzearekin batera¹⁴.

4. Enpresa transnasionalen betebeharrak espezifikoa

- 4.1. ETNek, haien filial izateko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek aitortu egin behar dituzte giza eskubideen lehenetsaren printzipioa eta interes publikoak interes ekonomiko partikularren gain duen nagusitasunaren printzipioa.
- 4.2. ETNek, haien filial izateko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte eskubide zibil, politiko, ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak, eta dagozkien zerga bete beharrak bete behar dituzte, estatuak garapen, elikadura egoki, elikadura burujabetza, osasuna, ingurumen osasungarri, etxebizitza, hezkuntza eta lurra izateko eskubideak bermatu ditzaten, bereziki.
- 4.3. ETNek, haien filial izateko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek ez dute egingo gerra krimen, gizateriaren aurkako krimen, genozidio, tortura, behartutako

desagertze, lan behartu edo derrigorrezko, bahitze, lekualdatze, exekuzio sumario edo arbitrarioa eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren bestelako urraketak adierazten dituen egintzarik, eta ez dira izango halakoen konplize, laguntzaile, akuilatzaile, eragile eta estalgile ere.

- 4.4. ETNek, haien filial izateko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte diskriminazioa –araza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazionalitate, jatorri sozial, egoera sozial, herri indigena bateko kideetasun edo afrikarren ondorengotza, ezintasun, adin edo dagokion lana egiteko baldintzekin loturarik ez duen beste edozein arraziorengatik diskriminazioa– debekatzen duten arau nazional eta nazioarteko guztiak, eta ekintza positiboak gauzatu behar dituzte, arauetan edo/eta erregelamenduetan aurreikusita egonez gero.
- 4.5. ETNek, haien filial izateko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte emakumeen bizi baldintzak eta saihestu egin behar duen haien esplotazioa eta haien kontrako indarkeria; ez dute komunitateko emakumezko liderren kontrako justifikaziorik gabeko salaketarik inkoatu behar; ez dute ahalbidetu behar emakumeen bizi baldintza duinak suntsitzea, beren esparru kulturalaren baitan, hizkuntza eta erreferentzia transzendentetarako eskubideak barne; ez dute eragotzi behar emakumezko liderrek gai publiko eta komunitateko gaietan parte hartzea. Esportazio industria intentsiboak –oihalgintza, lorezaintza, nekazaritza industria, lakak, etab.– iraunkortu egiten dute soldata arraila, lanaren sexuaren araberrako banaketa, ugalketa eta zaintza lanak ezkutuan gelditzea eta haiei dagokien baliorik ez aitortzea.
- 4.6. ETNek, haien filial izateko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte emakumeen eskubi-

¹⁴ Erantzukizun solidarioa bermearen behar objektiboan oinarritzen da. Erantzukizun solidarioa, egintzazkoa nahiz ez-egitezkoa, kaltean era batera edo bestera parte hartzen duten guztiei dagokie. Biktimak eskubidea du ordaina jasotzeko, eta erantzule guztiei oro har, banaka nahiz haietakoren bati eska diezaieke ordain hori, eta haiek kaudimenik ez badute, erantzule kaudimendunari. Legedi nazional eta nazioarteko asko daude erantzukizunari buruz eta kaltea eragiteko erantzukizun mailak zehazteari buruz, lan arloan, ingurumenean, finantza arloan, zigor esparruan...

deak, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean araututakoak, honako hauei dagokienez bereziki: Emakumearen Kontrako Diskriminazio Molde Oro Ezabatze Hitzarmena (CEDAW); Mexikon, Kopenhagen, Nairobin eta Beijingen egindako emakumeari buruzko munduko biltzarren adierazpenak eta azken buruko txostenak; Vienako Giza Eskubideen gaineko Munduko Biltzarra; Kairoko Populazio eta Garapenari buruzko Munduko Biltzarra eta emakumeek beste gizarte-talde batzuekin batera jasaten dituzten diskriminazio egoerei buruzko biltzarrak.

- 4.7. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek ezin dituzte beren zerbitzurako erabili estatuko indar armatuak edo segurtasun indarrak, ezta milizia pribatuak kontratatu ere. Segurtasun zerbitzu pribaturik kontratatuz gero, araudi zorrotz baten mende jardun behar dute zerbitzu horiek, beren funtzioak zuzen gauzatzen dituztela bermatzeko, indarra erabiltzeko baldintzak bermatzeko, eta agintarien ikuskaritza bermatzeko; eta, zer enpresarentzat lan egiten duten, ezin dute enpresa horren esparrutik kanpo ez jardun.
- 4.8. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek inola ere ez dute lankidetzarik –ekonomia, finantza nahiz zerbitzu lankidetzarik– gauzatu behar giza eskubideak urratzen dituzten entitate, erakunde edo pertsonekin.
- 4.9. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek leialtasunez jardun behar dute merkataritza eragiketetan eta publizitatean, eta arrazoi-zko xedapen guztiak ezarri behar dituzte beren produktu eta zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea bermatzeko, baita zuhurtasun printzipioa eta xede bera duten gainerako arau nazional eta nazioartekoak errespetatu ere. Ez dute, halaber, pertsona, animalia edo naturarentzat arriskutsu diren edo izan daitezkeen produktuen –hala nola gai eta hazi transgenikoen– publizitaterik ekoitzi, merkaturatu eta egingo.
- 4.10. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-har-

tzaileek ingurumena babesteko lege, araudi, jarduera administratibo eta politika nazionalekin bat etorrita jardun behar dute, eta aintzat hartu behar dituzte honako arlo hauei buruzko nazioarteko akordio, printzipio, arau, konpromiso eta helburuak: ingurumena eta giza eskubideak, osasun publikoa, segurtasuna, baita bioetika eta zuhurtasun printzipioa ere. Ingurumen-*dumpinga* saihesteko, hura debekatuko duen izaera unibertsal, aginduzko eta hertsagarriko gutxieneko lan esparru normatibo bat behar da.

- 4.11. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek dute ingurumen-pasiboen gaineko erantzukizuna –hala nola, hidrokarburoen ustiapenaren eta meatzaritzaren ondorioz urari, lurrari eta aireari eragindako kutsadura, presa hidroelektriko handiak eraikitzearen ondorioz ekosistemak suntsitzea, onartutakoa baino gas isuri handiagoak, etab.–, eta kalte-ordainak eman behar dizkiete herriei eta komunitateei, haiei eragindako kalteengatik, baita, hala badagokio, kalte horiek konpondu ere, ingurumen baldintzak esku-hartzearen aurretiko egoerara lehengoratu.
- 4.12. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek uko egin behar diote lan behartua eta haurren lana baliatzeari; era berean, lan ingurune seguru eta osasungarria eskaini behar dute; langileei bizi duina bermatzeko adinako ordainsaria eman behar diete, eta sindikatu askatasuna, negoziazio kolektiboaren aitortza eraginkorra eta greba eskubidea bermatu. Soldata eta gizarte-*dumpinga* saihesteko, hura debekatuko duen izaera unibertsal, aginduzko eta hertsagarriko gutxieneko lan esparru normatibo bat behar da.
- 4.13. Esportazio zona frankoetan, ekonomia eremu berezietan edo laketan itun honen 5. atalean deskribatutako krimenen bat egiten duten ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek zigorra jaso behar dute, legedi nazional eta nazioartekoetan araututako giza eskubideak errespetatzeko betebeharra baitute.

- 4.14. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean araututako langile migratzaileen eskubideak, bereziki, Langile Migratzaileen Hitzarmena (97.a), Abusuzko baldintzetan egindako migrazioei eta langile migratzaileen aukera eta tratu berdintasuna sustatzeari buruzko hitzarmena (143.a), Langile migratzaileei buruzko gomendioa (86.a) eta Langile migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa.
- 4.15. ETNek eta haien filial izatezko edo eskubidezkoek arrazoizko prezioak ordaindu behar dizkiete beren hornitzaile eta azpikontratistei, lan egokia lortzeko soldata duinak ordaindu ahal izan ditzaten. ETNek lizentzia-hartzaileen eskutik jasotako abantailek arrazoizkoak izan behar dute.
- 4.16. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte herri indigenen eta afrikarren ondorengoen lurralde eskubideak, baita lurpeko nahiz lur azaleko baliabide natural berriztagarri nahiz ez-berriztagarrien eta haien aberastasun genetikorako eskubidea ere.
- 4.17. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek errespetatu egin behar dituzte LNEren 169. Hitzarmena eta NBEren Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena. Kontsulta eta partaidetza eskubideak ukaezinak, ordezkaezinak eta lotesleak izango dira estatu, enpresa eta beste eragile batzuekin erlazioak eraikitzeko, eta, Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren 27. artikulua araberan, ezingo dira barne zuzenbideko xedapenak argudiatu itun bat ez betetzeko justifikazio gisa¹⁵.
- 4.18. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-har-

tzaileek beren jarduera gauzatzen duten herrialde guztietako zerga arloko lege eta arau xedapenak bete behar dituzte, eta harrera herrialdeen finantza publikoak lagunduko dituzte, dagokienean ordainduz beren zerga zorrak.

- 4.19. Enpresa transnazionalak publiko egin behar dute zer herrialdetan gauzatzen dituzten orotariko merkataritza edo/eta finantza jarduerak, baita beren filial, hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileen identifikazioa ere, eta nortasun juridikoa duten beste entitate edo enpresa batzuetan zer molde juridikorekin parte hartzen duten, halakoetan parte hartuz gero.
- 4.20. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek beren jarduera gauzatzen duten herrialdeetako jabetza intelektualari buruzko politiken eta planen mende jardun behar dute, baita giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen mende ere.
- 4.21. ETNek, haien filial izatezko edo eskubidezkoek eta hornitzaile, azpikontratista eta lizentzia-hartzaileek ordain bizkorra, eraginkorra eta egokia eman behar diete beren jarduerak kaltetutako pertsona, entitate eta komunitateei; sortutako kalte edo ahitutako ondasun ororengatik kalte-ordainak, lehenagotzea, ordainketa eta errehabilitazioa erabiliko dituzte horretarako, eta eragindako kaltearen adinakoak izango dira, gutxienez.

5. Nazioarteko krimenak

Nazioarteko krimen ekonomiko, korporatibo edo ekologikotzat hartu ahal izango dira eskubide zibil, politiko, sozial ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak nabarmen urratzen dituzten ekintzak gauzatzen dituzten edo halako ekintzetan konplize, laguntzaile, akuilatzaile, eragile edo estalgile modura diharduten enpresa transnazionalen –edo haien izenean diharduten pertsonen–, estatuen eta ekonomia-finantza erakundeen –nahiz haien ardura duten pertsona fisikoak– jarduerak; nazioarteko elementua jokoan sar-

15 Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioa, 27. artikulua: «Barne zuzenbidea eta itunak betetzea. Alde batek ezin argudiatu ahal izango ditu bere barne zuzenbideko xedapenak itun bat ez betetzeko justifikazio gisa».

tuko da delituzko jokabidea munduko komunitatearen segurtasun kolektiboaren interesei dagokienean edo nazioarteko komunitateak funtsezko aitortzen duen ondasun juridikoren bat urratzen duenean. Munduko Gorteak, itun honetako 6.5. artikuluan arautuak, izango du nazioarteko krimen horiek epaitzeko ardura.

5.1. *Gizateriaren kontrako krimen ekonomikoak*

Nazio Batuen Gutunean, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunean eta *ius cogens* kalifikatutako Nazio Batuen gainerako ebazpen eta adierazpenetan araututako eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak urratzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen jarduerak gizateriaren kontrako krimen ekonomiko gisa tipifikatuko dira, Genozidio delitua prebenitu eta zehatzeko Konbentzioaren 2 c artikuluan aipatutako baldintzak¹⁶ eta talde politikoak suntsitzea eta etnozidioa gertatzen direnean.

5.2. *Nazioarteko krimen korporatiboak*

ETNen edo haien izenean diharduten pertsonen jarduerak honako kalifikazioaren bat dagokien kasuetan tipifikatu ahal izango dira nazioarteko krimen korporatibo gisa: ustelkeria, eroskeria, krimen antolatua, pertsonen trafikoa, funtsen erabilera bidegabe, diru zuritzea, zerga iruzurra, informazio pribilegiatuaren trafikoa, merkatuen manipulazioa, bezeroen, akziodun txiki eta akziodun publikoen kontrako iruzur antolatua eta finantza egoeren faltsutzea, besteak beste.

5.3. *Nazioarteko krimen ekologikoak*

Pertsona fisiko edo juridikoen jarduerak sorturiko banaketa gatazka ekologikoen sailean sartzen dira lurra eta lurraldeak metatzea, ur iturriak pribatizatzea eta kutsatzea eta ziklo hidrológico orokorra suntsitzea, oihanak eta biodibertsitatea sarraskitzea, bioebasketa, klima aldaketa, itsasoen edo eguratsaren kutsadura masiboa eta ekozidioa, besteak beste. Lurraldeen gaineko kalte, kutsadura eta zapalkuntzatik abiatuta konfiguratu da suntsipen naturala. Horrek zuzenean lotura du natura eskubideekin eta, era berean,

giza eskubideekin eta giro osasungarriaz gozatzeko eskubidearekin; azken premisa hori funtsezkoa da arau nazional eta nazioartekoetan bildutako gainerako eskubideak bermatzeko.

6. Instantziak

- 6.1. Estatuak beren esparru jurisdikzionalan Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea betetzen dela bermatu behar dute, baita pertsonen babes judizial eraginkorra eskaini ere, ETNen aurrean. Era berean, justizia auzitegi nazionalen eta eskualdekoen funtzionamendu inpartzial, zorrotz eta eraginkortasuna bermatu behar dute –laguntza politikoaren eta ekonomikoaren bidez–.
- 6.2. Enpresa transnazionalen, haien filial izateko edo eskubidezkoen eta hornitzaile, azpikontrata eta lizentzia-hartzaileen jardueren lurraldeaz kanpoko erantzukizuna erregulatzeko arauak onartu behar dituzte estatuak; arau horiek bidea eman behar dute jardura horiek kalteturiko komunitateek estatu matrizeko auzitegietan auzia eskatzeko.
- 6.3. Jurisdikzio unibertsalaren esparruan, pertsona fisikoek eta juridikoek bere lurraldeetan edo haietatik kanpo egindako genozidio, gizateriaren kontrako eta Erromako Estatutuan araututako beste delitu batzuekin loturiko egintzak bideratu eta salaketak jaso behar dituzte estatuak.
- 6.4. Enpresa transnazionalak kontrolatzeko zentro publiko bat sortu behar da, enpresa transnazionalen jarduerak aztertu, ikertu eta ikuska ditzan. Zentro hori kudeatzen gobernuek, gizarte-mugimenduek, sindikatuak eta herri autoktonoek parte hartuko dute. Haren egiteko nagusia izango da transnazionalen jarduerak kaltetutako talde eta organizazioek aurkeztutako salaketak ikertzea. Salaketa horietan egitasun zantzuak izanez gero, frogatu behar diren karga alderantzizatu egingo da; alegia, enpresa transnazionalak behartuta egongo dira eskubide zibil, politiko, sozial, eko-

¹⁶ Genozidio delitua prebenitu eta zehatzeko Konbentzioaren 2 c artikulua. Konbentzio honetan, genozidiotzat hartzen da jarraian aipatutako diren egintzetatik edozein, horiek egiten direnean nazio-, etnia, arraza edo erlijio talde bat, oso-osorik edo zati batean, suntsitzeko asmoarekin: c) Taldea, hala nahita, ezartzea, oso-osorik edo zati batean, suntsiketara fisikoa ekarriko dion bizitza baldintzen menpean.

nomiko, kultural eta ingurumenekoak urratu ez dituztela frogatzera.

- 6.5. Korporazio Transnazionalen eta Giza Eskubideen Munduko Gorteak bermatzen du, mekanismo unibertsal, eskualdeko eta nazionalen osagarri, pertsonak eta komunitateek nazioarteko instantzia judizial independente baterako sarbidea dutela eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta ingurumenekoak urraketa kasuetan justizia lortzeko; gorte hori arduratuko da giza eskubideak urratzeagatik eta krimen ekonomiko, korporatibo eta ekologikoen erantzukizun zibil eta zigor erantzukizunagatik enpresa transnazionalen, estatuen eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeen kontra jarritako salaketak onartzeaz, ikertzeaz eta epaitzeaz¹⁷.
- 6.6. Korporazio Transnazionalen eta Giza Eskubideen Munduko Gorteak antolaketa eta funtzionamendu independentea du Nazio Batuen eta dagozkien estatuen organo exekutiboekiko.
- 6.7. ETNek, estatuek eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeen erantzukizun zibilak eta zigor erantzukizunak barne hartzen ditu haiek egindako krimen eta arau-hausteak –edo konplize, laguntzaile, akuilatzaile, eragile eta estalgile direla egindakoak–, baita haien zuzendari, gerente eta erabakiak hartzeko organoetako –organo pertsonabakar nahiz kide anitzetako– kideek egindakoak ere. Inputazio bikoitzairen printzipioari jarraituz, entitate legala nahiz egintza hobengarria gauzatu duten kideak epaitu ahal izango dira haien ardurapeko urraketak direla eta. Pertsona juridikoei honako zigor hauek ezarri ahal izango zaizkie, besteak beste: isuna, zigor erabakiaren jendaurreko hedapena, delitua egiteko erabilitako tresna edo haren produktua konfiskatzea eta desegitea.

- 6.8. Korporazio Transnazionalen eta Giza Eskubideen Munduko Gortearen ebazpenak eta zigorrak exekutiboak eta derrigorrez bete beharrekoak izango dira¹⁸.
- 6.9. Giza Eskubideen Hitzarmenen gaineko batzordeak eta izaera judizialeko nazioarteko bestelako jurisdikzioek beren agintean artean onartu behar dute korporazio transnazionalen eta nazioarteko ekonomia-finantza erakundeen kontrako kexak zuzenean jasotzeko aukera, eta horiek Korporazioen Munduko Gorteari igorri, hark landu ditzan.
- 6.10. Enpresa transnazionalen eta estatuen arteko gatazkak ezin errekurri daitezke nazioarteko arbitraje panelen aurrean. Auzitegi nazionalak dute gatazka horiek ebazteko eskumena. Eskualdeko edo nazioarteko gainerako jurisdikzioek, aipatutako merkataritza eta inbertsio arbitraje panelek izan ezik, modu osagarrian jardungo dute kasu bakoitzean ekiten duen estatuaren barne baliabideak agortuz gero edo auzia epaitzeko gehiegizko berandutzea gertatuz gero.
- 6.11. Estatuaren eta herrien arteko merkataritza harremanek aintzat hartu behar dituzte haien subiranotasuna, berdintasuna, solidaritatea, elkarrekotasuna eta elkar osagarritasuna, gutxienez. Edonola ere, herrien beharrak ase behar dituzte. Estatuaren arteko merkataritza gatazkak bide diplomatikotik konpondu behar dira, edo aldeek aukeratutako hirugarren estatuaren bitartekaritzaren bidez.

7. Azken xedapena

Herrien nazioarteko itunak itunen itun baten edo itun marko baten dimentsio juridiko du. Haren hainbat xedapenek garapen normatiboa behar dute, erabat finka daitezten; eta, horrekin batera, berehalako eraginkortasuna duten betebeharrak eta eskubideak ere badira.

17 Hauek dira Korporazio Transnazionalen eta Giza Eskubideen Munduko Gortearen funtzionamendurako erreferentzia markoak: Itsas Zuzenbidearen Nazioarteko Auzitegia eta Suitzako Ekimenaren eskariz aurkeztutako proposamenak –Mary Robinsonek zuzendutako proiektua, Suitza, Norvegia eta Austriako gobernuak sustatua, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. Urteurrenarekin bat etorritako– giza eskubideen gairako Nazio Batuen errelatore Martin Scheininnek eta torturaren gairako errelatore Manfred Nowakek landuak.

18 Ebazpen eta zigor exekutiboak eta derrigorrez bete beharrekoak hartzeko, Munduko Merkataritza Erakundearen Desadostasunak Konpontzeko Sistema hartzen da eredu, nazioarteko mekanismo jurisdikzional eraginkorrena horixe dela jotzen baita. Zigor hertsagarriak ezartzeko eskumenak korporazioen eskubideen defentsarako Nazioarteko Auzitegi izaera ematen dio.

Lan honen garapen normatiboa ez da geldituko estatuen edo nazioarteko erakundeen eskuetan soilik. Organizazio, gizarte-erakunde eta komunitateak ere *Herrien ituna* garatzeko prozesuetako aktore eta subjektu dira, halaber.

Testu honetan aipatu diren nazioarteko tipo penalak eta krimenak, baita bertan aitortutako eskubideak ere, ez dira mugatuak, hemen adibide eta zerrenda soil modura emanak baizik; hortaz, inplizituki aitortu eta horiei gehitzekoak dira gainerako eskubide eta krimenak.

Bibliografia

- ANTENTAS, Josep Maria eta Esther Vivas (2012): *Planeta indignado. Ocupando el futuro*, Sequitur, Bartzelona.
- ATTALI, Jacques (2012): *Mañana ¿quién gobernará el mundo?*, Biblioteca Nueva, Madril.
- BERRÓN, Gonzalo (2014): “Un Tratado que obligará a las transnacionales: la vía expresa para la defensa de los derechos humanos”, in *Papeles*, 127. zk., 55-65.
- BONET, Jordi (2013): *El Derecho Internacional de los derechos humanos en periodos de crisis. Estudios desde la perspectiva de su aplicabilidad*, Marcial Pons, Madril.
- BONET, José Luis (2013): “Las marcas comerciales como embajadoras de la marca país”, in *Economistas*, 134. zk.
- BUXTON, Nick (arg.) (2014): *State of Power – Exposing the Davos Class*, Transnational Institute, Amsterdam.
- CALLE, Ángel (2005): *Nuevos movimientos globales. Hacia la radicalidad democrática*, Popular, Madril.
- ESPINOSA, Carlos (2013): “Tiempo de España”, *El País*, otsailak 26.
- FRASER, Nancy (2007): “La justicia en tres dimensiones”, *Correspondencia de Prensa*, urriak 14.
- GONZÁLEZ, Erika eta Ane Garay (coords.) (2014): *Empresas transnacionales e impactos en América Latina: 4 estudios de caso en El Salvador, Colombia y Bolivia*, Cuadernos OMAL, 7. zk.
- GUTIÉRREZ, Cesáreo eta María José Cervell (2012): *El Derecho Internacional en la encrucijada*, Trotta, Madril.
- HARVEY, David (2007): *Breve historia del neoliberalismo*, Akal, Madril.
- HERNÁNDEZ, Juan (2009): *Las empresas transnacionales frente a los derechos humanos. Historia de una asimetría normativa*, Hegoa eta OMAL, Bilbo.
- HERNÁNDEZ, Juan eta Pedro Ramiro (arg.) (2009): *El negocio de la responsabilidad. Crítica de la Responsabilidad Social Corporativa de las empresas transnacionales*, Icaria, Bartzelona.
- HERNÁNDEZ, Juan yeta Pedro Ramiro (2014): “El poder corporativo transnacional frente al *soft law*: Plan Nacional sobre Empresas y Derechos humanos, debates y propuestas”, honako honetan: MÁRQUEZ, Carmen (arg.), *España y la implementación de los principios rectores de las Naciones Unidas sobre empresas y derechos humanos: oportunidades y desafíos*, Huygens, Bartzelona.
- HERNÁNDEZ, Juan, Erika González eta Pedro Ramiro (eds.) (2012): *Diccionario crítico de empresas transnacionales. Claves para enfrentar el poder de las grandes corporaciones*, Icaria, Bartzelona.
- KLEIN, Naomi (2001): *No Logo. El poder de las marcas*, Paidós, Bartzelona.
- KLUG, Heinz (2007): “Una campaña por la vida: la construcción de una nueva solidaridad transnacional frente al VIH/Sida y al ADPIC”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta César A. Rodríguez (arg.), *El derecho y la globalización desde abajo. Hacia una legalidad cosmopolita*, Anthropos, Bartzelona.
- MARTÍN-ORTEGA, Olga (2008): *Empresas multinacionales y derechos humanos en Derecho Internacional*, Bosch Internacional, Bartzelona.

- NAREDO, José Manuel (2013): *Economía, poder y política. Crisis y cambio de paradigma*, Díaz & Pons, Madril.
- PATOMÄKI, Heikki eta Teivo Teivainen (2008): *Democracia Global*, Universidad Mayor de San Marcos eta PDTG, Lima.
- PINGEOT, Lou (2014): *La influencia empresarial en el proceso post-2015*, Cuadernos 2015 y más, 4. zk.
- POLANYI, Karl (1989): *La gran transformación*, La Piqueta, Madril.
- PRADELLE, Géraud (2001): “Juridicisation de la société et globalisation”, honako honetan: CHE-MILLER-GENDREAU, Monique eta Yann Moulier-Boutang (zuz.), *Le Droit dans la mondialisation*, Presses Universitaires de France, Paris.
- PUREZA, José Manuel (2007): “Usos contrahegemónicos defensivos y de oposición del derecho internacional: de la Corte Penal Internacional a la herencia común de la humanidad”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta César A. Rodríguez (arg.), *El derecho y la globalización desde abajo. Hacia una legalidad cosmopolita*, Anthropos, Bartzelona.
- RAJAGOPAL, Balakrishnan (2005): *El Derecho Internacional desde abajo*, ILSA, Bogota.
- RAMIRO, Pedro (2014): *Marca España. ¿A quién beneficia?*, Icaria, Bartzelona.
- RAMIRO, Pedro y Erika González (2013): “Empresas transnacionales: impactos y resistencias”, in *Ecologista*, 77. zk., 18-21.
- RODRÍGUEZ, César (2007): “La ley de Nike: el movimiento antimaquila, las empresas transnacionales y la lucha por los derechos laborales en las Américas”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta César A. Rodríguez (arg.), *El derecho y la globalización desde abajo. Hacia una legalidad cosmopolita*, Anthropos, Bartzelona.
- RODRÍGUEZ, César eta Luis Carlos Arenas (2007): “Derechos indígenas, activismo transnacional y movilización legal: la lucha del pueblo U’wa en Colombia”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta César A. Rodríguez (arg.), *El derecho y la globalización desde abajo. Hacia una legalidad cosmopolita*, Anthropos, Bartzelona.
- SAGUIER, Marcelo (2010): *En el banquillo de los acusados: Empresas transnacionales y violaciones de derechos humanos en América Latina*, FLACSO, Argentina.
- SARTORIUS, Nicolás (2010): *Una nueva gobernanza global: propuestas para el debate*, Fundación Alternativas, Madril.
- SHAMIR, Ronen (2007): “La responsabilidad social empresarial: un caso de hegemonía y contrahegemonía”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta César A. Rodríguez (arg.), *El derecho y la globalización desde abajo. Hacia una legalidad cosmopolita*, Anthropos, Bartzelona.
- SOUSA, Boaventura (2004): “Colombia: el revés del contrato social de la modernidad”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta Mauricio García, *El caleidoscopio de la justicia en Colombia*, Colciencias, Instituto Colombiano de Antropología e Historia, Universidad de Coimbra, Universidad de los Andes, Universidad Nacional de Colombia eta Siglo del Hombre Editores, Bogota.
- SOUSA, Boaventura (2007): “Más allá de la gobernanza neoliberal: el Foro Social Mundial como legalidad y política cosmopolitas subalternas”, honako honetan: SOUSA, Boaventura eta César A. Rodríguez (arg.), *El derecho y la globalización desde abajo. Hacia una legalidad cosmopolita*, Anthropos, Bartzelona.
- TARROW, Sidney (2005): *El nuevo activismo transnacional*, Hacer, Bartzelona.
- TEITELBAUM, Alejandro (2010): *La armadura del capitalismo. El poder de las sociedades transnacionales en el mundo contemporáneo*, Icaria, Bartzelona.
- TRIBUNAL PERMANENTE DE LOS PUEBLOS (2010): “La Unión Europea y las empresas transnacionales en América Latina: Políticas, instrumentos y actores cómplices de las violaciones de los derechos de los pueblos”, Sesión deliberante, Madril, maiatzak 14-17.
- ZAMORA, Francisco, Jesús García eta Lorena Sales (2013): *La responsabilidad de las multinacionales por violaciones de derechos*, Universidad de Alcalá eta Cátedra de Democracia y Derechos Humanos, Madril.

EGILEENTZAKO ARAUAK

Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkioten lan guztiak. Artikuluak argitaragarbeak izango dira, beste hedabide batean argitaratu emateko inoiz aurkeztu gabeak.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikoa bidez harremanetan jarriko gara artikulu sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikuluak ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira *Hegoa Lan-koaderno* ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketa egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketa. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikusi ditzaten testua eta erabilitako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatuak den jargoia ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letrarekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografiakoek, berriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua *doc* (Microsoft Office Word) edo *odt* (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra etzanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikuluen edukien

adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokien, egileek berez aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukiaren adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili grisena eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, *pdf*, *xls* (Microsoft Office Excel) edo *ods* (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiekin batera, oinarritako datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitzen jotzen duenean, formula matematikoa zenbakituko ditu, zenbaki arabiarrek erabiliz, kortxete artean jarrita formularen eskuinaldean. Formula matematikoei eta testuei gainerako sinbolo guztiak, *pdf* formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografiakoak testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar bereizita, elkarren hurreneko ordenan, zaharretatik berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikkink, 1998)

(Keck eta Sikkink, 1998; Dobbs *et al.*, 1973)

Oharra: *et al.* erabiliko da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiako osoa jarriko da, egileen araberrako hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluaren atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsioren data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", *Papeles*, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", *Journal of Agrarian Change*, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): *La nueva economía del agua*, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madril.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): *La cooperación y el desarrollo*

humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): *Unpaid Work and the Economy*, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): *A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters*, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokien, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkariako artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikoa den data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen dago eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:


NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: *Comunicado de Prensa*, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/es/pr0793s.htm>>.

ELGA (2001), *The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict*, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

COPYRIGHT-AREN OHARRA

*Hegoa Lan-koaderno*ak saillean argitaratzen diren artikulua guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:



Orrri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziaren babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluaren egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela.

LAN-KOADERNOAK CUADERNOS DE TRABAJO WORKING PAPERS

0. Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur. Samir Amin.
1. Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe. Clara Murguialday.
2. El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89. Xabier Gorostiaga.
3. Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente. Bob Sutcliffe.
4. La Deuda Externa y los trabajadores. Central Única de Trabajadores de Brasil.
5. La estructura familiar afrocolombiana. Berta Inés Perea.
6. América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio? Joaquín Anriola y Koldo Unceta.
7. Los nuevos internacionalismos. Peter Waterman.
8. Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis. Xoaquín Fernández.
9. La carga de la Deuda Externa. Bob Sutcliffe.
10. Los EE.UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional? José Antonio Sanahuja.
11. Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice. Bob Sutcliffe.
12. El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo. Peter Waterman.
13. 50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial. Koldo Unceta y Patxi Zabalo.
14. El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización. Idoye Zabala.
15. Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria. Karlos Pérez de Armiño.
16. Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis. Juan Carlos Miguel de Bustos.
17. Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres. Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez.
18. Crisis económica y droga en la región andina. Luis Guridi.
19. Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación. Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio.
20. Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo. Maria Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia.
21. Liberalización, Globalización y Sostenibilidad. Roberto Bermejo Gómez de Segura.

Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo. Centro de documentación Hegoa.
22. El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo XXI. Karlos Pérez de Armiño.
23. Integración económica regional en África Subsahariana. Eduardo Bidaurrez Aurre.
24. Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África. Karlos Pérez de Armiño.
25. Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90. Iñaki Valencia.
26. Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro. Alfonso Dubois.
27. Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia. Carlos Martín Beristain.
28. La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal. Patxi Zabalo.
29. La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo. Lara González.
30. Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica. José Antonio Alonso.
31. A more or less unequal world? World income distribution in the 20th century.
¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe.

32. **Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean.** Bob Sutcliffe.
¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.
33. **La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas.** Karlos Pérez de Armiño.
34. **Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el África Austral.** Eduardo Bidaurrazaga y Jokin Alberdi.
35. **Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización.** Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada.
36. **Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas.** Ángeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín.
37. **Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano.** Alfonso Dubois y Juan José Cortés.
38. **Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil.** Social Science Research Council.
39. **La participación: estado de la cuestión.** Asier Blas, y Pedro Ibarra.
40. **Crisis y gestión del sistema global. Paradojas y alternativas en la globalización.** Mariano Aguirre.
¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce.
41. **El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género.** Idoye Zabala.
42. **¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo.** Miguel González Martín.
43. **Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas.** Yolanda Jubeto.
Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos. Diane Elson.
44. **Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela.** Mikel de la Fuente Lavín, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco y Roberto Magallanes.
45. **La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia.** Juan Garay.
El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe.
46. **Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local?** Javier Arellano Yanguas.
47. **Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo** Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal, Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larrú y Javier Arellano Yanguas.
48. **Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra.** Irantzu Mendia Azkue.
Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz. Irantzu Mendia Azkue.
49. **Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas.** Jorge Gutiérrez Goiria.
50. **Las mujeres en la rehabilitación posbélica de Bosnia-Herzegovina: entre el olvido y la resistencia.** Irantzu Mendia Azkue.
51. **La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas.** Karlos Pérez de Armiño e Iker Zirion.
52. **Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible.** Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
53. **Regímenes de bienestar: Problemáticas y fortalezas en la búsqueda de la satisfacción vital de las personas.** Geoffrey Wood.
54. **Genero-ekitate eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan.** María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
55. **Hamar Urteko Euskal Lankidetzaren azterketa. Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008.** Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
Análisis sobre Desarrollo Humano Local, equidad de género y participación de una década de Cooperación Vasca. Los casos de Ecuador, Guatemala, Perú y la RASD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
56. **Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna.** Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.

El Desarrollo Humano Local: aportes desde la equidad de género. Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.

57. **Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak.** Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.

Movimientos sociales y procesos emancipadores. Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.

58. **Borrokalaria ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak ikuspegi feministatik.** iker zirion landaluze.

Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género. iker zirion landaluze.

59. **Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista.** Irantzu Mendia Azkue.

Justicia transicional: dilemas y crítica feminista. Irantzu Mendia Azkue.

60. **Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores.** Zesar Martinez y Beatriz Casado.

61. **Distribución agroalimentaria: Impactos de las grandes empresas de comercialización y construcción de circuitos cortos como redes alimentarias alternativas.** Pepe Ruiz Osoro.

62. **La evolución del vínculo entre seguridad y desarrollo. Un examen desde los estudios críticos de seguridad.** Angie A. Larenas Álvarez.

63. **Los movimientos sociales globales en América Latina y el Caribe. El caso del consejo de movimientos sociales del ALBA-TCP.** Unai Vázquez PuenteCasado.

64. **Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnazionalen kontrolerako. Gizarte-mugimenduetan eta nazioarteko elkartasunean oinarritutako apustua.** Juan Hernández Zubizarreta, Erika González, Pedro Ramiro.

Tratado internacional de los pueblos para el control de las empresas transnacionales. Una apuesta desde los movimientos sociales y la solidaridad internacional. Juan Hernández Zubizarreta, Erika González, Pedro Ramiro.